

Herririk Herri | 4

Durangaldeko plazak betetzeko deia egin du astebururako Herrira ekimenak



Berbaz | 10

V. Belategi: "Nerabeei heldutasunerako bidean baliabideak eskaini gura dizkiegu"

Kultura | 13

Ghertzainak: "Hertzainaken kantei gure ukitua eman gura izan diegu"

DURANGALDEA | 3

"Geroz eta beharrizan handiagoa dago herrian; Jaed-en lanez gainezka gaude"

Jaed elkarteak azaldu duenez, Durangon eta lurretan eskaintzen duen laguntza %26 igo da urtebetean.



KIROLA | 19

"Datorren urtean liga irabaztea da lehentasuna"

Jon Ander Crende 'Xapo' errugbi jokalaria elorriarrak, Errege Kopako irabazi du Ordizia Rugby Taldeagaz. Ligako finala ere jokatu du, baina ezin izan dute garaipena lortu.



ELORRIO | 8

Kaltetu baten ustez, sute eta erasoak bere aurka izan dira

Eguazten goizaldean Elorrioko Batzokia erasotzeaz gainera, musika lokal bat eta auto bat erre zituzten. Erretako lokalaren jabeetako batek azaldu duenez, ekintza horiek bere aurkakoak izan dira.

Mañaria | 9

Faxisten aurka borrokatu zutenen oroimenezko plaka jarriko dute

Mallabia | 8

Barazki eta nekazaritza produktuen azoka, asteburuan

Durangaldea | 4

Bizkaibus Mañaria eta Izurtzara helduko da datorren urtean

Iurreta | 6

IX. Okela eta Ardo Eguna ospatuko dute zapatuan

PREST
m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Inskripzio epea
zabalik!

ATE IREKIAK

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Graduen, Unibertsitate Masterren eta Graduondoen aurkezpena

Eskoriatza **MAIATZAK 26** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia **MAIATZAK 26** larunbata, 10:30

Goi Eskola Politeknikoa Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia

Arrasate **EKAINAK 9** larunbata, 10:30



HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak

@anboto

DURANGO

Gabriela Arosemena hil aurreko datuak batu gura dituzte

Herritar guztiei dei egin diete familiak eta lagunek maiatzaren 5ean gertatuaz lekukotzak emateko

Maiatzaren 5ean Juan de Iciar auzoko leiho batetik jausi eta hil zen Gabriela Arosemena. Heriotza ikertzen jarraitzen du Ertzaintzak, baina datu gehiago ez dutela adierazi dute asteen. Familiak eta lagunek herritar guztiei laguntza eskatu diete, lekukotzak jaso eta gau hartan gertatu zena argitu guran.

Daturen bat edukiz gero Durangoko 4. Instrukzio Epaitegira joateko eskatu dute

Maiatzaren 4tik eta maiatzaren 5erako goizaldean, Traña-Matiena (Abadiño) edo Durango

inguruan egon zitezkeen herritarrei eskatu diete laguntza. Baten batek Arosemenagaz lotutako daturen bat edukiz gero, Durangoko 4. Instrukzio Epaitegira joateko eskatu dute. Honako telefono zenbakiak eman dituzte: 94 603 00 54 edota 94 603 00 60.

Ertzaintzak gizon bat atxilotu zuen, heriotzaren aurretik emakumea giltzapetu izana leporatuta; ondoren aske utzi zuten, epailearen aurretik pasatzeko zain. Polizien ikerketak baztertu egin du hilketa izan zenik.

Udalbatzaren dolumina
Durangoko Udaleko alderdi guztiek komunikatu bat sinatu dute,



Gabriela Arosemenaren lagunek Juan de Iciar auzoan egindako ekitaldia, maiatzaren 8an.

Gabriela Arosemenaren heriotza deitoratu eta familiartekoei eta lagunei doluminak helarazteko.

Adierazi dutenez, udala Ertzaintzagaz eta genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zuzendaritzagaz elkarlanean dabil, eta eskaria egin diete agintariei, argi-

Heriotza ikerketapean dagoenez, adierazpenak egiterakoan udalak "zuhurtziaz" jokatu du

tzeko "herria astindu duen heriotza hau ahalik eta arinen".

Kasua polizia-ikerketapean dagoenez, adierazpenak egiterakoan udalak "zuhurtziaz" jokatu gura duela diote; "ekintza polizialak ez eragozteko eta, hala balegokio, ezta judizialak ere". ■ A. U.

Eraikuntzagaz loturiko enpresen aliantzaren irudia

Sukia promotorak gonbidatuta, Errotarixuenako eraikuntza proiektua bertatik bertara ezagutu zuten barikuan Porcelanosa eta Solvia inmobiliariako ordezkariak.

Eraikuntzagaz loturiko hiru enpresa horien "aliantza" irudikatu zuten. Eraikitzen dabilzan proiektua bisitatu zuten (2013 amaierarako amaitu gura dute).

Fede Arruti Durangoko udal arkitektoak, Errotarixuena inguru hori birsortzeko egindako lana azpimarratu zuen. ■ I.E.



Cafés Baqué enpresak herririk herri trailer bat ibiliko du datozen sei hilabeteetan, "kafearen kultura eta bere onurak" erakusteko asmoz. Durangon, Ezkurdi plazan egin dute lehen geldialdia, sei hilabetez egingo duten bidaian.

Jorge Belastegi Baquéren zuzendari komertzialak adierazi duenez, kafe aleak batzen direnetik egiten den prozesu osoaren berri emango dute, eta produktu beragaz ahalik eta maila altuenera kafea zelan prestatu erakutsi gura dute.

Ezkurdin maiatzaren 21era arte egongo da kamioia. Sanfaustoetan Durangora etorriko dira, eta azaroan bueltatuko dira atzera Durangaldera: Elorriora eta Abadiñora. ■ A. U.

Kafe Eskola kalera atera du Cafés Baqué enpresak

Ezkurdin kamioi bat egongo da astelehenera arte



Aurrekontuetan, etxebizitza arloari hainbat zuzenketa

PPk alde bozkatuko du bere zuzenketak onartuz gero; Aralarrek osoko zuzenketa aurkeztu du

Aurrekontuen eztabaida maiatzaren 29an izango dute Durangon. Oposizioko alderdiek EAJren proposamenari zuzenketak aurkeztu dizkiote. Etxebizitza eta ekonomia arloko hainbat proposamen daude tartean. Aralarrek eta PPK euren zuzenketen berri eman diete komunikabideei.

Aralarrek 21 zuzenketa eta osoko zuzenketa aurkeztu ditu, "parte-hartze prozesurik egon ez delako". Dani Maeztu zinegotziaren berbetan, EAJren proposamenak eta euren alderdiarenak "ez daukate zerikusirik".

PPk, 11 zuzenketa aurkeztu ditu. Aurrekontu proposamenean gizarte arloan "utzikeria" somatu dutela azaldu du Juanjo Gaztañazatorre bozeroaleak, eta nagusiei eta gazteei zuzendutako diru ataletan murrizketarik ez egiteko eskatu du. Aurreratu duenez, zuzenketen onarpenak baldintzatuko du PPK aurrekontuen alde edo kontra bozkatzea.

Hutsik daudenak okupatu
Aralarrek bere zuzenketetan hutsik dauden etxebizitzak okupatzea eta alokairuzko kontra-

tuen alde egitea proposatu du. Odi Bakar eta San Rokeko etxeetan 56 pertsonak atzera egin dutela azaldu du Maeztu: "Gazteek finantzazio arazoak dituzte eta jabetzako etxeak ez dira irtenbidea".

Maeztu: "Gazteek finantzazio arazoak dituzte eta jabetzako etxeak ez dira irtenbidea"

Etxe hutsak (1.506) betetzeko, besteak beste, 30 urte baino gehiagoko etxeak zaharbertzako diru atala sortzea proposatu du Aralarrek, gero alokairu bidez kudeatzeko. PPK 300.000 euro gordetzea proposatu du, babeseko etxeak eraikitzeko lurra erosteko.

Enplegua ere bai

Oposizioko alderdiek enplegua sustatzeko proposamen batzuk ere egin dituzte. Aralarrek, besteak beste, enpresak herrigunetik kanpoaldeko industria gunetara eramateko "interes bako kredituak" ematea proposatu du. PPK, "sektore ekonomiko estrategikoak bultzatzeko" diru atala 150.000 euro haztea proposatu du. ■ A. U.



DURANGALDEA

Jaed-ek ematen duen laguntza %26 igo da urtebetean

2010ean beharizana zuten 450 familia lagundu zituen; 2011n 604 familiak eskuratu zuten laguntza

Janaria erosi, jaso, garraiatu eta poltsak egin. Kalebarriako lokalean eten barik errepikatzen den jarduna da Jaedentzako (Gizarte Laguntza Durangaldean). Elkartek zuzen-zuzenean nabaritu du krisiaren eragina: "Lanez gainezka gaude, hilabete hauetan inoiz baino elikagai gehiago bana-

familia. Beraz, %26 igo da elkar-teak urtebetean eskualdean emandako laguntza.

49 urte lanean

Jaed 50. urteurrenera iritsiko dalaster. Elkartearen hastapenetan, Durangoko gaixoak zaintzera joaten zirenean familia haiek bizi zuten egoera larria ikusi zuten. Berehala, laguntza ematea erabaki zuen. 1963. urtea zen. Elkartea ezagutzera emateko Jaed izena eskuorrietan idatzi eta herri osoan bota zituzten. Espaloiak ere margotu zituzten. "Batzuek uste zuten Jaed siglek, *Jose Antonio Agirre que en Paz Descanse* esan gura zutela".

Gizartearen aldatetara moldatzen jakin du elkartek. Dibortzio legea onartu zenean banatutako emakume askori laguntzen

"Familia osoak aitita amamei esker bizitzen ari dira. Hemengoei kosta egiten zaie laguntza eskatzea"

tzen gabiltza", azaldu du Iñaki Gorritxategik, Jaedeko kideak. Datuek ez dute zalantzarako tarterik uzten: 2010ean 450 familia lagundu zituzten. 2011n, berriz, 604



Banatu beharreko elikagaien biltegia, Kalebarrian.

hasi ziren. Inmigrazioaren hazkundeagaz, ostera, laguntza eskaintzen dieten etorkinen kopuruak ere gora egin du.

Laguntza hori guztia eman ahal izateko, Durango eta Iurretako udalen eta Tapia Fundazioaren diru-laguntza jasotzen dute. Horrekin ez dute nahikoa, eta baliabide ekonomikoak handitzeko hainbat ekimen antolatzen dituzte. Jaieta-

ko zapiak eta loteria saltzen dute, adibidez. Elkartearen bazkideen eta Durangoko Rastrilloaren laguntza ere badute.

Gabon sasoiari, Jaedek kalera ateratzen du isilean egiten duen lana. Andra Marian ongintza zozketarako standa jartzen dutenean jendaurrera ateratzen dute jarduna. Baina, lana urte osokoa da, eta 49 urte dira dagoeneko.

Diskrezio osoz

Krisiarekin etorkinak bakarrik ez, bertokoak ere txarto pasatzen ari dira: "Familia osoak ari dira bizitzen aitita-amamei esker. Hemengoei, baina, kosta egiten zaie laguntza eskatzea". Jaedera jotzen dutenek elkartearen diskrezio osoa dute. "Janaria poltsetan banatzen dabilzanek ere ez dakite noren-zako diren". ■ J. Guenetxea



Jaedek Pinondo Etxeko bigarren solairuan du egoitza.

"Laguntzak jasotzeko baldintzak oso zorrotzak dira"

Jaedek astero erosten dituen elikagaiak gainera, Elikagaien Bankuko eta Europako Batasuneko Soberakinen laguntza banatzen du. Lan horretarako hamabi lagunekoa lantalde finkoa dauka. Ekimen zehatzak antolatu behar direnean, 60 lagunekoa taldea mobilizatzen du. Hala ere, pertsona bakarra dukontratatu: Cobadonga Doval. Pinondoko bulegoan astelehen eta

eguenetan 16:30etik 18:30era laguntza jaso gura duten pertsonak hartzen ditu. Geroago eta hilara luzeagoa sortzen da bere bulegoko atean. "Laguntzak jasotzeko baldintzak oso zorrotzak dira", adierazi du. Janaria jasotzeko, hilabete bi erroldatuta egoteaz gainera, bizitza laborala eta bestelako dokumentuak eskatzen dituzte. Laguntza ekonomikorako, urte bete erroldatuta egon beharra dago.

Janariari dagokionez, poltsak geroago eta osatuagoak dira. "Umeak dauden familietan laguntza berehalakoa da. Elikagai poltsetan pardelak, esnea eta zerealak jartzen ditugu, baita produktu freskoak eta oilaskoa ere". ■ J. G.

La Otra Mirada elkartek Jaed-en aldeko elikagai bilketa antolatu du Durangoko ikastetxeetan:

Lekuak:

- Kurutzia Ikastola
- Nevers
- San Antonio Santa Rita

Egunak:

maiatzaren 21ean eta 22an



GOI MAILAKOAK

- * Administrazioa eta finantzak
- * Web aplikazioen garapena
- * Telekomunikazioa eta informatika sistemak
- * Automatizazioa eta robotika industriala
- * Fabrikazio mekanikoko produkzioa
- * Fabrikazio mekanikoko diseinua
- * Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- * Energia eraginkortasuna eta eguzki energia termikoa

prestakuntza zikloak aurrematrikula

ERDI MAILAKOAK

- * Mantentze lan elektromekanikoa
- * Beroa sortzeko instalazioak (beroa, ura eta gasa)

2012/05/28—2012/06/08

Online: www.learnik.com



DURANGALDEA

Bizkaibus Mañaria eta Izurtzara ere helduko da 2013an

Astegunetan hiru joan-etorri aurrekusi dituzte; udal biak zerbitzua nahikoa den aztertzen ari dira

Datorren urteari begirako plangintza lantzen ari da Bizkaibus eta aurreproiektuan Mañaria eta Izurtza Bilbogaz lotuko dituen autobusa ipintzea ere aurrekusi dute. Horrela, 2013an Bizkaibusek lehenengoz eskainiko luke autobus zerbitzua udalerrri bietara.

Aurreproiektuaren berri jakitean, udal ordezkariak informazio zehatzagoa eskatu diote Bizkaibus-

si. Konpainiaren erantzunaren arabera, astelehenetik ostiralera egunean hiru joan-etorri eskainiko dituzte. Bizkaibusek Bilbo eta Durango zuzenean lotzen dituen autobus zerbitzua du (autobidetik doana) eta zerbitzu horretako hiru autobus Izurtza eta Mañariara luzatzea aurrekusi

dute. Beraz, honako hau izango litzakete ibilbidea: Bilbo-Iurreta-Durango-Izurtza-Mañaria. Bizkaibusek oraindik ez du jakinarazi joan-etorri horien ordutegia zein izango den.

Helegiteak lantzen

Datozen asteetan aurreproiektuari helegiteak ipintzeko epea irekita dago. Horiek lantzeko autobusen ordutegia jakitea garrantzitsua dela uste du Luis Jose Ballarin Izurtzako alkateak: "Horrela, Gasteliz eta Durango lotzen dituen Continental konpainiaren ordutegiagaz alderatuko genuke, ordutegiak bateragarriak diren edo ez jakiteko".

Gaur egun, Continentalek astegunetan egunean zazpi autobus eskaintzen ditu noranzko bietan eta lau asteburuetan. ■ J. D.

Bilbo eta Durango zuzenean lotzen dituen zerbitzuko hiru autobus luzatuko litzakete

"Ematen du zerbitzua ez dela nahikoa, baina egoera ondo aztertu gura dugu"

Izurtzako herritarrek auzo taxi zerbitzua ipintzea proposatu dute

Iurretan eta Elorrion egin duten antzera, Izurtzan ere auzo taxi zerbitzua ipintzeko proposamena egin diote hainbat herritarrek udalari. Herriko egoera eta beharrianak aztertu ostean, egunean taxi bi jartzea eskatu dute: 12:00etan eta 19:30ean. Honako ibilbidea proposatu dute: Iurreta-Durangoko Mag-

dalenako geratokia-Landako-Gran Hotel-Izurtza-Azkonizaga jatetxea eta Fosrok enpresa.

Udalaren edozein ekarpen hartzeko prest daudela diote, baina alkateak dioenez, "proposamen hori garatu aurretik Bizkaibusen zerbitzua zein izango den jakin gura dugu, beharriak beteko dituen jakiteko".



Bilbo eta Durango lotzen dituen autobusa, Magdalenen.

Plazetan biltzeko deia egin dute, presoak gerturatzea eskatzeko

Herrira ekimenak Euskal Herri osorako egin duen deia gaz bat egin dute Durangaldeko hainbat herririk

Euskal presoan eta iheslarien Euskal Herriratzea ahalbidetzeko lanean ari den herri mugimendua da Herrira. "Gehiengo zabal baten helburua" errealitate bihurtu guran, zapatua aldarrikapen eguna bihurtzea nahi dute. Baina aldarrikapen hori ez da herri edo hiri batean kontzentratuko; herriz herriko izango da, eta herrira.org webgunean jakinarazi dutenez, 205 deialdi daude Euskal Herriko beste horrenbeste herritan. Durangaldeko hainbat herritan ere *Goazen plazara* lelopean mugimenduagaz bat egiteko deia egin dute.

Durangon 13:00etan argazki erraldoia aterako dute Ezkurdin batuko diren herritarrekin. Baina aurretik beste hainbat ekimen egongo dira. Tabiran eta Andra Marian poesia emanaldiak eta antzerki saioak egingo dituzte eta Santa Anan Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsotan ariko dira.

Abadiñon, Txanporta plazan aterako dute argazkia, 19:00etan. Aurretik paella txapelketa egingo dute eta preso eta iheslarien aldeko dekorazio onena sarituko dute.

Otxandion plazan batuko dira eta, besteak beste, Vulcano futbol taldearen eta Urduri dantza taldearen

ren erakustaldiak egongo dira. Ostean, agazkia aterako dute bertaratutako guztiekin. ■ J. D.

Deialdiak

- DURANGO**
- 12:00etan: Poesia emanaldia Tabiran.
 - 12:15ean: Unai Iturriaga eta Igor Elortza Santa Anan.
 - 12:30ean: 'Isolamendurik ez' antzerkia Andra Marian.
 - 12:45ean: Komiki marrazketa Ataramiñeren eskutik.
 - 13:00etan: Argazkia Ezkurdin.

- OTXANDIO**
- 12:00etan: Antzerkia plazan.
 - 12:30ean: Vulcanoren futbol partida plazan eta Urduri dantza taldearen saioa.
 - 14:00etan: Bertsolariak plazan. Ondoren argazkia.

- ABADIÑO**
- 19:00etan: Paella txapelketa. Argazkia Txanporta plazan.

- ZALDIBAR**
- 12:00etan: Giza katea eta mural baten irudikapena plazan. Musika, trikitaliak, luntxa eta sagardo ibiltaria.

- Gainerako deialdiak:**
- Atxondoko plazan, 12:00etan. Elorriko plazan, 13:00etan. Iurretako plazan, 13:00etan. Berrizko plazan 13:00etan.

Kontsumoaren gaia lantzen dabilta ikasleak

Irrati-tailerrak egiten eta Peruko gazteekin bideokonexio bidez lanean ari dira 324 ikasle

Eskola Agenda 21en barruan, Durangaldeko zazpi herritako 324 ikasle kontsumo arduratsuen gaia lantzen ari dira irrati-tailerretan. Asteon, gainera, Peruko ikasleekin bideokonexioak egin eta hango eta hemengo tradizio eta kontsumo ohiturei buruz berba egin dute.

Kontsumoari buruzko irratiaioak Durango Irratian eta ikastetxe batzuek dituzten irrati estudioetan grabatzen dituzte, eta bideokonferentziak Peruko Ciudad Eten herriko ikastetxeekin egiten dituzte. *Compromiso por*

Peruko gazteekin hango eta hemengo kontsumo ohiturei buruz berba egin dute

la Mujer elkartearen lankidetzagaz dabilta hango tradizio eta kontsumo ohiturak ezagutzen. Elkarte horrek Peruko emakumeen eta ingurugiroaren aldeko proiektuak garatzen ditu.

Egitasmoan Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek parte hartzen dute, eta Emaus Fundazioak eta Amankomunazgoak elkarlanean antolatuta dute. ■ A. U.

Euskara zerbitzurako aurrekontuan %31ko igoera

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak %31 igo du Euskara zerbitzuari dagokion diru-partida. Horretarako, euskararen dinamizazioa eta normalizazioa sustatzeko 119.677 euro erabiliko dituzte aurtan. "Euskararen eta Durangalderako proiektuen aldeko apostua garbia da", Oskar

Zarrabeitia Amankomunazgoaren presidentearen berbetan. Gainera, Berrizko Udala ere zerbitzu horretara batu dela adierazi du.

Martxan jarri gura dituzten proiektu berrien artean plataforma digital berri bi daude: Durangaldeko Euskararen Ataria eta Beharsarea. Albisteak, ekitaldiak, proiektuak eta euskarazko lan eskaintza nahiz eskariak zabaltzeko erabiliko dituzte bi egitasmoak.

Bestalde, epe laburrean euskara teknikariaren postua sortuko dutela jakinarazi du Zarrabeitia. ■ M. O.

BERRIZ

Udalak frontoia konpontzeko 50.000 euro erabiliko ditu

Udal pilotalekuko konponketak egiteko 50.000 euro inguru erabiliko dituzte aurtan. Teilatuko itoginak eta frontisa konponduko dituzte. Gainera, kanpoaldea garbituko dute, eta horma batean frontoia izena margotuko dute. Udalak aurtan daukan diru-soberakinetik atera dute pilotalekurako partida hori.

Udalak aurtan daukan diru-soberakinetik atera dute pilotalekurako partida


Frontoikoa ez da soberakineko diruagaz finantzatu den proiektu bakarra. Guztira 451.000 euro inbertituko dituzte, batez ere mantenimentu lanetan. Orlan Isoird alkateak azaldu du, frontoikoagaz batera Legaño eta Abeletxe auzoetako konponketak izango direla aurtengo ekin-tza esanguratsuenak. Legaño-ko 60.000 euro erabiliko dituzte, eta Abeletxerako 10.000. Gainontzeko auzoetan bideak konpontzeko 27.000 euro gastatuko dituzte. Bestalde, Eituako industrialdean saneamendua bideratzeko 35.000 euro erabiliko dituzte, besteak beste. ■ M. O.



ZALOA FUERTES

ARGAZKILARIA | PHOTOGRAPHER

www.zaloafuertes.com
zaloa.fuertes@gmail.com
☎ 685 70 48 39



ARGAZKI SOZIALA EZKONTZAK JAUNARTZEAK PRODUKTUAK BOOK

IURRETA

IX. Okela eta Ardo Eguna ospatuko dute Askondon

Arabako Errioxako Upeltegien laguntzagaz antolatu du lurretako Udalak



Iazko Ardo eta Okela Eguna, Askondo plazan; bisitari ugari batu zituen. M. Onaindia

Arabako Errioxako ardo eta bildots pintxoak dastatzeko aukera izango dute iurretarek bihar. Izan ere, IX. Okela eta Ardo Eguna antolatu du udalak Arabako Errioxako Upeltegien Elkarteagaz elkarlanean. Parte hartuko duten bederatzi upeltegiak,

Askondo kalean eskainiko dute ardoa, 11:00etik 14:30era.

Ardoa hobeto dastatzeko kopa erosi ahal da 2,5 euroan eta Burduntzian erretako bildots pintxoak ere jarriko dituzte salgai, 1,5 euroan. Antolatzaileak "pozik" daude ekimenak urte urte duen erantzunagaz. Herritarrek ezagun dituzte dagoeneko Askondon

Upategiak

- Covila (Lapuebla de Labarca)
- Garcia de Olano (Paganos)
- Vallobera (Guardia)
- Pascual Larrieta (Samaniego)
- Gil Berzal (Guardia)
- Perez Irazu (Billar)
- Señorío de las Viñas (Laserna-Guardia)
- Luis Angel Casado Manzanos (Lapuebla de Labarca)
- Pavoni (Lapuebla de Labarca)

Burduntzian erretako bildots pintxoak ere jarriko dituzte salgai, 1,5 euroan

batuko diren upategiak: "Gehientsuenak behin baino gehiagotan etorri dira lurretara", azaldu dute udal arduradunek.

Umeak, aurpegia margotuta Umeek aurpegia margotzeko eta pin-ak egiteko aukera ere izango dute eurontzako eraturako tailerretan. 11:30etik 13:30era bitartean egingo dituzte Askondo kalean etxeko txikiengan pentsatutako ekintzok. ■ A. Basauri

ZALDIBAR

Gizarte ohiturak aztertu eta txandakatuko dituzte

Etxeko lanei lotutako roleri buruz jardungo dute gizon eta emakumeek 'Erantzunkizun tailerlean'

Etxeko lanen inguruan, gizon eta emakumeen rola txandakatzeko proposamena egingo dute Erantzunkidetasun tailerlean. Gizarte ohiturak aztertu eta aldaketarako alternatibak eskainiko dituzte udalak antolatu dituen saioetan.

Argindarra, brikolajea eta iturgintza-lanen oinarritzko ezagutza landuko dute tailerlean parte hartuko duten emakumeek, eta fun-

tsezko konponketa txikiak egiten ere ikasiko dute.

Gizonei zuzenduriko tailerlean, bestalde, etxea garbitzen edo arropa lisatzen jardungo dute: "Dietarioa egin eta etxeko ekonomia kontuan hartzen", eta antzeko kontuak landuko dituzte.

Maiatzaren 22, 24, 29 eta 31n, KZguneko eraikinean egingo dituzte tailerren saioak. ■ I. E.

OTXANDIO

Presoak hurreratzeko dioen logoa webgunetik kentzeko eskatu dute

Estatuko Abokatutzak aurkeztu du administrazioarekiko auzi-helegitea

www.otxandio.net webgunean euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen duen logo bat dago. Udalak irudia webgunetik kentzeko helburuz, Estatuko Abokatutzak administrazioarekiko auzi-helegitea aurkeztu du. Alde bien argudioak irakurri ondoren, Bilboko administrazioarekiko auzien bigarren epaitegiak hartuko du erabakia udalak logoa mantendu dezakeen edo ez.

Euskal Autonomia Erkidegoan Espainiako Gobernuaren ordezkari Carlos Urquijok logo horren berri eman zion Estatuko Abokatutzari, eta helegitea aurkezteko agindu zion.

Alde bien argudioak irakurri ondoren Bilboko epaitegiak hartuko du erabakia

Udalaren ordezkariak azaldu dutenez ez da akusazio-prozedura bat, zuzenbide penala izan daitekeen moduan. Beraz, inork deklarazioa aurrez aurre egin gura duela eskatzen ez bada, alde biek idatziz bidaliko dituzte euren argudioak: "Epaia logoa kendu behar den edo ez esango du. Printzipioz ez da zigor ekonomikorik izango. Prozedura aurrera eramatearen kostua bakarrik". ■ J. D.

ABADIÑO



Jende asko batu zen San Trokaz Eguneko ekitaldietara.

Dantzarien bueltan batu ziren San Trokaz Egunean

Udal ordezkarien eta jaunartzea egin zuten neska-mutikoen aurrean aritu ziren dantzan

Jende asko batu zen, martitzenean, San Trokaz Eguneko ohiturazko ekitaldietan. Meza Nagusian jaunartzea burutu zuten, maiatzaren 15ean, herriko hainbat umek, eta ondoren, dantza emanaldia eskaini zuten ezpatadantzari eta irlanderekin, neska-mutikoen, udal ordezkarien eta bertaratuta-

ko herritarren aurrean. Baina, jaiak ez dira amaitu, eta oraindino bada goz zer ikusi eta entzun.

Domekan, txokolatadaren ostean egingo diote agurra jaietako irudiari: Gerbasi

Gaur, Erramun Martikorena eta Mikel Markezek disko berriak aurkeztuko dituzte zuzenean, 22:30ean. Bakarka ariko dira, baina, tarteka, baita elkarrekin ere. Kantariek Abadiñoko probalekuan eskainiko dute kontzertua, eta sarrera doakoa da.

Bihar, goizean goiz ekingo diote jai egitaruari. Bizikleta martxa egingo dute 10:00etan, eta goizaldera arte askotariko ekintzak izango dira aukeran.

Domekan, Txanporta plazan egingo duten txokolatadaren ostean egingo diote agurra jaietako irudiari: Gerbasi. Horrela amaituko dituzte jaiak. ■ I. E.

URTXIINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
 Aukera ezazu hemen zure erregalua
 Andra Mari kalea, 9 DURANGO Tel.: 94 681 50 17

gremioen koordinazioa
urtiaga
 Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
 azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
 erakusketa, salmenta eta ipintzea
 Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Hemen agertu gura baduzu
deitu!

94 621 79 02



aisia LEKEITIO
H ★ ★ ★

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g

48280 Lekeitio

Tel.: 94 684 26 55

Fax: 94 624 35 00

lekeitio@aisiahoteles.com

lekeitioestaurante@aisiahoteles.com

www.aisiahoteles.com



HAINBAT OPARI ZURE ESKU, EZTEI BANKETEA LEKEITIOKO AISIAN EGINEZ GERO, 2012KO URRITIK 2013KO OTSAILERA:

- Dj saioa bi orduz
- Eztei Gaurako Suite-a + "Jarri Eder" pakete termala
- Autobus bat, 55 lagunekoa, gonbidatuak garraiatzeko
- 2. afaria edo txokolate erretilukada
- Cava, brindiserako
- Lore apainketa pertsonalizatua, mahaietarako
- Menu pertsonalizatuak
- Argazki erreportajerako prezio bereziak + ezkontza gonbidapenak debalde



Gutxienez 50 pertsonako ezkontzak. Beste kopuru batzuetarako, baldintzak galdetu.



BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

Zelan deitzen da Ordizia Errugbi Taldeagaz Errege Kopa irabazi duen elorriarra?

MARTXOKO IRABAZLEAK: Eneritz Barrainkua eta Maria Larrea. **ZORIONAK!**

BIDALI ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera



ELORRIO

Kaltetu baten ustez, sute eta erasoak bere aurka izan dira

Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen eguaztenean, baina aske utzi ditu



Eguazten goizaldean Ortuburu kalean erasotutako entsegu-lokala.

Eguazteneko sute eta erasoak bere kontra egindako ekintzak izan dira, kaltetutako pertsona baten ustez. Arrazoi pertsonalak ei daude motibazioaren atzean. Erretzen saiatu ziren autoren jabea da, eta su eman zioten lokaleko kidea ere bai. Batzokiaren eta edukiontzi baten aurkako ekintzak nahasmena sortzeko egin zituztela uste du. Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen eguaztenean Elorrion, baina aske utzi ditu. Implikazioa ez dagoela argi azaldu dute. Goizaldeko 01:20an hasi zen eraso-segida. Ertzaintzaren arabere

Rodolfo Ares: "Zantzu guztien arabera, ekintzak ez dira kale borrokakoak"

ra, kaputxadun bi Batzokiaren kristalak apurtzen hasi ziren, baina zulo txiki bat egitea besterik ez zuten lortu. Inguruko bizilagunak agertu, eta ihesari ekin zioten erasotzaileek, likido sukoia piztu barik. Hamar minutura, Ortuburu kaleko entsegu-lokal bat erre zuten. 02:00ak aldera gauza bera egin zuten kontainer batez,

Oidor Berriozabalgoitia kalean. Gero, Lekeriketan auto baten aurka egin zuten, eta sabaiak kaltetu. Rodolfo Ares Herrizaingo sailburuak ikerketaz berba egin du: "Zantzu guztien arabera, ekintzak ez dira kale borrokakoak". Ana Otadui alkatearentzat jazotakoa gaitzesgarria da, "bakean elkarbitzeko garaia baita". EAJk alderdien "irritzi-emate argia" eskatu du. Ezker Abertzaleak elkartasuna adierazi die EAJri eta kaltetuei, eta zenbait adierazpen politiko "interesatuak eta desitxuratzailak" direla adierazi du. ■ M. Onaindia

Krisia eta alternatibak aztergai berbaldietan

Kainaberak eratuta, Denboraren Bankua lako ekimenik sortu ote daitekeen eztabaidatuko dute

"Gaur egungo egoera hobeto ulertzea eta aurrerantzean zer eredutara jo dezakegun azaltzea". Helburu horregaz antolatu du Kainaberak aurtengo Maiatzeko Hitzaldiak zikloa. "Krisi ekonomiko globalaren aurrean azalpen

argiak eta kritikoak emango dizkiguten hizlariak gonbidatu gura izan ditugu". Datorren egunean izango da lehenengo berbaldia, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Patxi Zabalo EHUko irakasleak *Zergatik gaude krisian?* ize-

neko berbaldia eskainiko du egunean. Egungo krisiak 1929koagaz dauzkan antzekotasunak aztertuko ditu bertan, besteak beste. Desazkundea mugimenduko Pedro Ugarteren txanda izango da maiatzaren 31n. *Desazkundea: Bizitza maila vs kontsumo maila?* izango da gaia. Ekainaren 7rako Denboraren Bankua ekimeneko ordezkariak gonbidatu dituzte. Herritarren gaitasunak eta trebeziak dedikazio tarteen arabera trukatzeko dituzte. Elorrion horrelakorik sortu ahal den aztertuko dute. ■ M. O.

Eroskiren planta bisitatu du Lopez Lehendakariak

Patxi Lopez EAeko Lehendakariak Elorrion bisita egin zuen eguaztenean. Ana Otadui alkatearekin batera Eroskiren instalazioetan izan zen, elikagaien plataforman garatzen dabilen obrak ikusteko. Automatizatu egingo dute plataforma hori, eta Europa mailan diseinu aitzindaria edukiko duela azaldu dute. Egitasmoa diseinatu eta martxan jartzeko, LKS Ingenieria eta Ulma Handling Systems kooperatiben lankidetzak dauka Eroskik. ■ J. G. / M. O.



MALLABIA

Barazki eta artisautza produktuek beteko dute Nekazaritza Azoka

Kultur Hamabostaldiaren bigarren asteburuan baserriko produktuak izango dira nagusi

Kultur Hamabostaldiak aurrera darrai Mallabian. Asteburu honetarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Domekan, inguruko baserrietako jeneroa eskuratzeko aukera izango dute frontoira doazenek. Xabat Areitourtena zinegotziak azaldu duenez, hamabost postu ipiniko dituzte. Bost edo sei postu herriko nekazariak bertako ortuetatik ateratako barazkiekin beteko dituzte. Patea eta gazta ere egongo dira salgai. Bestalde, artisauak larrua eta egurra zelan lantzen duten erakutsiko dute.

Orraitio euskara elkarteak pintxo eta sagardo postua ipiniko du.

Bazkari autogestionatua Zapatuan, 10:30ean, mendi lasterketa herrikoian ariko dira gazte zein heldu. Indarrak berritzeko, herri bazkari autogestionatua antolatu du guraso elkarteak. Iluntzeko 20:00etan, berriz, herriko Jasokunde eta Mendibil abesbatzek kontzertua eskainiko dute Jasokunde Andra Maria elizan, Yasmin pianojolea bidelagun dutela. ■ J. G.



lazko azoka, Mallabiko pilotalekuan.

Etxebizitzen premia neurtuko dute batzarrean, udalak deituta

Herritarrek etxebizitza arloan duten premia ezagutzeko batzarra deitu du udalak. Hitzordua maiatzaren 24rako jarri dute, arratsaldeko 19:00etan, kultur etxean. Udalak gai honen inguruan zeresana duten herritar guztiak gonbidatu ditu bilkurara.

"Etxebizitza arloan ekimenen bat martxan jarri aurretik herrian benetan behar hori dagoen ezagutu gura dugu", azaldu du Mila Mondragon alkateak. Gaineratu duenez, etxebizitzak eraikitzeke oraindino ez dute proiektu zehatzik erabaki. Kalbario kalean dauden etxebizitza zaharren kasuan, auri deklaratu eta bertan eraikitzea izan daiteke aukeretako bat. "Etxebizitza horiek tasatuak edo kooperatiba moduan sortu daitezke, herrian premia hori badago", adierazi du Mondragonek. ■ J. G.

GARAI

Ramon Zabaletaren omenezko proba, bihar

Ramon Zabaletaren lagunek eta inguruko probalariak antolatuta, asto-proba jaialdia egingo dute bihar Garain. 17:30etatik aurrera, lau talderen astoek egingo diote bultza harriari. Hauek dira izenak: Goizeder, Bitorio Zelaia, Maiora elkarte eta Igor Otaolea. Iurretako 700 kiloko harria eroango dute probarako.

Ramon Zabaleta 2011ko urriaren 24an hil zen, autoagaz istripua eduki ostean. Garai eta Goiuria arteko pista batean zihola, arbola bat gainera jausi zitzaion, eta bertan harrapatuta hil zen.

Herri-kirolean ibilia Herri-kirolean alorlean asko ibilitakoa izan zen Zabaleta, batez ere proban. Azaldu dutenez, zaletasuna familian konpartitzen zuen, aita, anaia eta semea ere herrikiroletan ibili izan direlako. Herri-kirolean sektoreak jaialdi berezi batez gaituzte du Ramon Zabaleta. ■ M. O.



Durungaldean labor

Gazte lokalen inguruko batzarra, maiatzaren 26an

Gazte lokalen erabiltzaileen eta jabeen iritzia jasoko dituzte maiatzaren 26an, 11:00etan, Pinondo etxean egingo duten bileran. Udalak urte amaieran onartu zuen gazte lokalen erabilera arautzeko ordenantzak ekarritako kritiken ostean, EHUko ikasle talde batek bideratuko duen prozesua abiatu dute araudia berriro idazteko. Ordenantzan inplikaturiko eragile guztiek parte hartzea gura dute.

Parte-hartze politikoa eta militantzia berbagai

Bihar, zapatuan, Durangoko Ibaizabal ikastolan burutuko dute Joxemi Zumalabe Fundazioak bideraturiko eztabaida: *Parte-hartze sozio-politiko eta militantzia*. Herri mugimenduari, parte-hartzeari eta militantziari buruzko kezken inguruan jardungo dute. "Eztabaida zintzo eta irekia" sortu gura dute hitzordu horretan, antolatzaileek adierazi dutenez.

Zaintzaileentzako ikastaroak ekainean

Durangoko Udalak eta Amankomunazgoak antolatu dute mendekotasuna duten adinekoen senide eta zaintzaileei zuzenduriko ikastaroa. Durangoko J. M. Barandiaran egoitzan izango dira saioak, ekainean. Izena emateko: 94 603 00 46 edo zaindu@durango-udala.net.

Jolas parke berriak atontzen dihardute

Tabirako parkeko jolasgunea berrizteko proiektua dauka Durangoko Udalak. Bi gune izango ditu Tabirako parke berri horrek: bi eta sei urte arteko umei zuzendutakoa, eta sei eta hamabost urtekoentzako. Oreaka jokoak eta eskalatzeko blokeak ipiniko dituzte bigarren gune horretan.

MAÑARIA

Kolpisten aurka borrokatu zirenak omenduko dituzte

Gerediagagaz eratu du udalak biharko ekitaldia; Aste Kulturalaren barruko ekimenetako bat da

Durango jausi ostean, Mañariak hilabete iraun zuen Eusko Jaurlaritzaren esku, Jon Irazabal historialariak dioenez. "Sasoi hartan herriko sarrera estua zen eta erraza zen defendatzea". Urkiolan jazotako gudaldietarako

behin-behineko ospitalea ipini zuten herrian. Frontean hiru mañariak hil ziren; ez dute kartzelatu eta erbesteratu daturik. Herritarrek euren datu eta lekukotzak ematea sustatu gura du Gerediagak. Bihar berbaldua eskainiko du Irazabalek, 12:30ean hasiko den ekitaldian. "Askatasunaren alde eta faxismoaren aurka" borrokatutako omenezko plaka inauguratuko dute bertan.

Aste Kulturala ospatzen dabil-tza Mañarian, eta hainbat ekital-



Kultur etxean, *Gerra Zibila Durangaldeen* erakusketa dago, domekara arte.

Bihar berbaldua eskainiko du Irazabalek, 12:30ean hasiko den ekitaldian

di Gerra Zibilagaz lotu dituzte: antzerkia, proiektzioa... *Gerra Zibila Durangaldeen* erakusketa domekara arte egongo da ikusgai. Horretaz gainera, beste izatera bateko ekimenak ere prestatu

"Faxismoaren aurka" borrokatutako omenezko plaka bat inauguratuko dute

dituzte: gaur bertso-afaria, bihar kontzertua eta etzi pilota partiduak. Elikadura eta Artisautza azoka eta Ahuntz azpi gorrien monografikoa ere eratu dituzte domekarako. ■ M. Onaindia

IZURTZA

Geltokia egiteko lur zati bat utziko diote udalari

Inguruko enpresak dira zati horren jabe eta baimena eman dute obrak egin ahal izateko

Botikaren ondoan egin gura duten autobus geltokiko lur zati bat inguruan dauden enpresena da. Beraz, enpresa horien baimena behar zuten eremu hartan lurrag mugitzeko. Udala eta enpresetako ordezkariak negoziatzen ibili dira eta akordioa lortu dute: enpresek lur zati horren lagapena egin diote udalari. Orain lortutako akor-

dioa notario baten aurrean sinatzea falta zaie, akordioa legezko egiteko.

Ordineta, enpresetako ordezkariak zera eskatu diote udalari: etorkizunean Izurtzako Jauregiaren atzealdean aurreikusita dauden etxebizitzak eraikitzen direnean, autobus geltokia harantz mugitzea. ■ J. D.

ATXONDO

Marixurrikeren udalekuetan parte hartzeko izen-ematea abiatu dute

Uztailerako antolatu ditu aisialdi taldeak, 'Naturarekin bat!' lelopean

Marixurrikeren aisialdi taldeak udalekuak antolatuko ditu uztailaren 2tik 27rako. Aurten *Naturarekin bat!* da euren leloa eta naturagaz zerikusia duten ekintzak eta irteerak egingo dituzte.

Atzo hasi zuten izen-ematea eta ekainaren 1era arte egongo da zabalik. Aisialdi taldeko kideek jakinarazi dutenez, udaletxean eta ludotekan eskuragarri daude

izena emateko eskaera orriak. Beharrezko datu guztiak ipini ostean, udaletxean eta ludotekan bertan entregatu ahal dira udalekuetan parte hartzeko eskaerak.

Udaleku bi antolatuko ditu: hamabost egunerakoa bat eta hilabete osokoa bestea

Marixurrikeren udaleku bi antolatuko ditu: hamabost egunerakoa bat eta hilabete osokoa bestea. Ume bakarra duten familientzat 60 euro da hamabostaldiko prezioa eta 100 euro hilekoa.

Familia berean ume bat baino gehiago dituztenentzako prezio merkeagoak ipini dituzte: 50 euro aste biko udalekuetarako eta 80 euro hile osorako. ■ J. D.

Goiuria auzoa 16 - 48215 Iurreta (Bizkaia) Tel.: 94 681 08 86

www.asadorgoiuria.com

EZKONTZAK - JAUNARTZEAK - ENPRESA BAZKARI-AFARIAK
BATAIOAK - EDOZEIN MOTAKO OSPAKIZUNAK ...

2 pertsonentzako MENUAK zozketatuko ditugu

Bidali zure datuak:
anboto@anboto.org edo
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateylexpe.com

Elorrion ere aukera onak

BERBAZ >

“Seme-alabei mezu positiboagoak bidalita erantzun hobeak jasoko genituzke”

“Zeintzuk dira zuentzat egoera estresanteak?”; galdera horrekin hasten ditu Belategik nerabeei zuzendutako saioak

**Virginia Belategi Azpiri**

- Arrisku psikosozialen prebentziorako teknikaria
- Durangarra da

Nerabeen ardurak asko dira: euren arteko hartuemanak, azterketak, alkohola, drogak... Ikastetxez ikastetxe egoera gaitz eta estresanteak kudeatzeko ikastaroak ematen ditu Virginia Belategik. Erain aholkularitza eta prestatuntza enpresan dabil lanean. Gazteekin lan egiteaz gainera, guraso eskolak eta oro har gizartearentzako ikastaroak ere eskaintzen dituzte.

Zuen proiektu nagusia gazteen osasun integralari begirako proiektua da.

Programaren leloa “Zeure osasuna zeure esku” da; hurrengo belaunaldiko gazteei guk izan ez ditugun baliabideak eskaintzea gura dugu, osasunaren arlo fisikoan, psikologikoan eta emozio-

nalean, jabekuntza lor dezaten. Arlo fisikoan, lehen sorospenak eta prebentzioari buruzko oinarriko kontuak lantzen ditugu. Arlo psikologikoan, egoera gaitzak eta estresa kudeatzeko bideak lantzen dira. Euren arteko hartuemanak eta emozioak kudeatzeko moduloa ere eskaintzen dugu.

Gazteekin gai hauek lantzeko beharra zelan sortu zaizue?

Premiaren premia. Erain sortu genuen profesionalok seme-alaba gazteak dauzkagu, eta euren premiak eta gabeziak ikusten ditugu. Haurtzarotik heldutasunera euren bidea egiteko baliabideak eskaini gura dizkiegu. Guraso eskolak ematen ere bagabiltza, gurasoon premiei erantzuteko. Niretzako oso aberasgarria da etxean daukadana eta lanekoa elkar elikagarriak izatea. Lanean eta etxean landutakoak eguneroko praktika bihurtzen dira.

Gazteek zelako jarrerarekin hartzen zaituzte? Interesa daukate? Zentroen arabera izaten da. Batzuek landuta daukate eta badakite zertara goazen, eta beste batzuek ez; eurentzako matematikak eduki ordez gu goaz. Hasieran arreta galduta

“Gai izango bagina arnasa hartu eta pentsatzeko, gauzak beste era batera ikusiko genituzke”

“Udara begira, UEUgaz ikastaro bat eskainiko dugu publiko orokorarentzako”

egoten dira, eta notarako ez denez paso egiten dute holakoetan. Saio amaierarako, aldiz, berriro noiz joango garen galdeztzen digute. Ikusten dugu premia badagoela, azkenean gai batzuek engantxatu egiten dituztelako ikasleak.

Zer gaik engantxatzen dituzte? Euren sasoiko gaiak dira drogak, alkohola, euren arteko harremanak... Larrialdien aurrean zer egin ere lantzen dugu; albokoak larri edan badu zer egin, adibidez. Abiapuntua izaten da: “Zer da zuentzako estresantea

eta zeintzuk dira zuentzako egoera zailak?”. Ikasketetako gainkarga, gurasoekin dauzkaten arazoak eta lagunekin izaten dituzten iskanbilak izaten dira euren ardurak, eta gai horiek lantzen ditugu. Gidoia eroaten dugu, baina gero ikasleek esaten dutenaren arabera, norabidea aldatzen du saioak.

Zelakoak izaten dira gurasoekin izaten dituzuen saioak?

Niri oso esperientzia polita iruditzen zait, guraso naizen heinean asko ikasten dudalako. Gurasoen ardura handiena komunikazioa izaten da; ez dakigula eurekin berba egiten, ematen duela ez gaituztela aditzen... Hori da batez ere jorratzen duguna. Eta gero gurasook guk geuk ditugun estres egoerei ere zelan aurre egin, horiek lantzen ditugun heinean familia ingurua ere osasuntsuago eta lasaiago egongo da-eta.

Zelan samurtu daiteke komunikazio hori?

Jokabide asertiboak lantzen ditugu; gurasook seme-alaben aurrean daukagun jarrera zein den aztertzen dugu. Gure jarraiek baldintzatu egiten du seme-alabekin dugun hartueman.

Gurasook gure burua lasaitu, gure mezuek zer eragiten duten ikusi, eta mezu positiboagoekin zer lortuko genukeen aztertzen dugu. Gure arteko rol jokoekin lantzen dugu hori, eta konturatzten gara guri jokabide batekin edo beste batekin etorri, gure erantzuna oso desberdina izaten dela. Gure lanaren oinarriak Gestalt-a eta programazio neurolingüistikoa dira.

Estutasunei aurre egiteko aholku praktiko bat?

Hainbat faktore egongo dira lantzeko dauzkagunak, baina benetan gai izango bagina zerbait gertatzen zaigun bakoitzean arnasa hartu, eta horri buruz pentsatzen hasteko tarte bat hartzeko, gauzak beste era baten ikusiko genituzke. Deskonektatuta gaude arlo fisiko horretatik; oso bizkor bizi gara; gehienok, saturatuta. Oso arnas laburrak ibiltzen gara, eta estres egoeratan hori areagotu egiten da. Arnasak gelditu egiten zaitu, oxigenatu egiten zaitu eta zabaldu egiten dizu burua, gauzak beste era batera ikusteko.

Momentu honetan zer daukazue eskuartean?

Ikastetxeetako ikasturtea amaituta dago, eta bagabiltza gazteei eta begiraleei lehen sorospentarako ikastaroak ematen. Udara begira, gainera, UEUgaz ikastaro bat eskainiko dugu publiko orokorarentzako. Egoera zaileri aurre egiteko baliabideei buruzko ikastaroa izango da eta Baionan emango dugu. Matrikulazioa zabalik dago, eta jendea animatzen dut, oso giro ona egoten da-eta. ■ A.Ugalde.

“Heldutasunera euren bidea egiteko baliabideak eskaini gura dizkiegu nerabeei”

EUSKAL ASTEAK

Maiatzaren 18tik ekainaren 16ra

DURANGO



2012



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

www.durango-udala.net

duran...go!
goazen!



MAIATZAK 18, OSTIRALA

19:30 III. "PETER" MEMORIALA
ESKU PILOTA JAIALDIA
DURANGOKO PILOTAZALE ELKARTEA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

MAIATZAK 19, LARUNBATA

18:30 XI. ZESTA PUNTA TXAPELKETA
EZKURDI JAI-ALAI ZESTA PUNTA ESKOLA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

19:40 XXX. EUSKAL DANTZEN
JAIALDIA (I)
ZUBEROA eta BIZKAIA
TRONPERRI DANTZA TALDEA
Andra Mariako Elizpea

MAIATZAK 20, IGANDEA

12:40 XXX. EUSKAL DANTZEN
JAIALDIA (II)
GIPUZKOA, ARABA, NAFARROA
eta LAPURDI
TRONPERRI DANTZA TALDEA
Andra Mariako Elizpea

MAIATZAK 25, OSTIRALA

19:30 III. "PETER" MEMORIALA
ESKU PILOTA JAIALDIAREN
FINALAURREKOAK
DURANGOKO PILOTAZALE ELKARTEA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

20:30 ORGANO ETA SOPRANO
KONTZERTUA
GERARDO RIFÓN eta ANA SALABERRIA
ARANDOÑO KULTUR ELKARTEA
Jesuiten Eliza

MAIATZAREN 25etik EKAINAREN 3ra

ESKOLARTEKO PINTURA
LEHIAKETAREN ERAKUSKETA
Ordutegia: 18:00-20:00
Asteburuan: 12:00-14:00 / 18:00-20:00
DURANGALDEKO ARTISTEN ELKARTEA
Ezkurdi Erakusketa Aretoa

MAIATZAK 26, LARUNBATA

18:30 XI. ZESTA PUNTA
TXAPELKETA
EZKURDI JAI-ALAI ZESTA PUNTA
ESKOLA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

MAIATZAK 28, ASTELEHENA

09:45 UMEEN EUSKAL JOKU
TRADIZIONALAK
LANDAKO ESKOLA
Landako Polikiroldegia

EKAINAK 1, OSTIRALA

19:30 III. "PETER" MEMORIALA ESKU PILOTA
JAIALDIAREN FINALAURREKOAK
DURANGOKO PILOTAZALE ELKARTEA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

EKAINAK 2, LARUNBATA

20:00 TXISTU KONTZERTUA "DURANGO
HIRIA" eta GASTEIZKO UDAL FOLKLORE
AKADEMIAREN IKUSKIZUNA
SILBOBERRI TXISTU ELKARTEA
San Agustin Kultur Gunea

EKAINAK 5, ASTEARTEA

09:15 UMEENTZAKO ZINEA:
"KATU BAT PARISEN"
KURUTZIAGA IKASTOLA
Zugaza Zine Aretoa

EKAINAK 6, ASTEAZKENA

20:00 MENDI ERREPORTAIA:
"NEXT TIME INSHALLAH" Alex Txikon
ALPINO TABIRA MENDIZALE TALDEA
San Agustin Kultur Gunea

EKAINAK 7, OSTEGUNA

9:30 ARTZAINEN JOLASAK
SAN JOSE JESUITAK IKASTETXEA
Andra Mariako Elizpea

EKAINAK 8, OSTIRALA

19:30 XI. ZESTA PUNTA TXAPELKETAREN
FINALAURREKOA
EZKURDI JAI-ALAI ZESTA PUNTA ESKOLA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

22:00 DANTZA: "BURNIA"
AUKERAN DANTZA TALDEA
Sarrera: 10 euro / 7,5 euro (Bazkideak)
San Agustin Kultur Gunea

EKAINAK 9, LARUNBATA

12:00 "DURANGOKO AHOTSAK"
PROIEKTUAREN AURKEZPENA
San Agustin Kultur Gunea

16:30 III. "PETER" MEMORIALA
ESKU PILOTA JAIALDIAREN FINALAK
DURANGOKO PILOTAZALE ELKARTEA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

DANTZAROA

19:00 Kalejira Udaletxeko plazatik

19:30 Dantza agerraldia Ezkurdi plazan
GEREDIAGA ELKARTEA

EKAINAK 10, IGANDEA

12:00 JULENE AZPEITIA
LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
San Agustin Kultur Gunea

12:00 KALEJIRA
DURANGOKO TRIKITIXA ETA PANDERO
ESKOLAK, BARTOLOME ERTZILLA MUSIKA
ESKOLAKO TXISTULARIAK, JAIZALE
DURANGALDEKO TXISTULARI ELKARTEA,
TXORITXU ALAI, TRONPERRI

EKAINAK 16, LARUNBATA

18:30 XI. ZESTA PUNTA
TXAPELKETAREN FINALAK
EZKURDI JAI-ALAI ZESTA PUNTA ESKOLA
Ezkurdi Jai Alai Pilotalekua

19:00 KALEJIRA
TABIRA MUSIKA BANDA, ELGOIBARKO
DULTZAINEROAK eta BERGARAKO
ERRALDOIAK

20:00 KONTZERTUA
TABIRA MUSIKA BANDA, ELGOIBARKO
DULTZAINEROAK eta BERGARAKO
ERRALDOIAK
Andra Mariako Elizpea

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Garikoitz maitia

Beti izan zara eta izango zara bai etxekoentzat baita familia osoarentzat ere maitagarria eta berezia.

Zure lagunen laguna izan zarelako beraiek ere momentu onenetan eta txarretan zure ondoan egon dira eta orain gure ondoan dagozelako eskerrak emotea baino ez jaku gelditzen.

Eskerrik asko familia, lagunak, gure amalurra eta gure hizkuntza maite zenduan moduan maitatzen erakutsi deusku-zulako.

Asko botako doguz faltan zure besarkadak eta mosuak. Agur esan barik juen zara baina beti gugaz egongo zara.

*Irrifarra ahoan
distira begietan,
oroimenean hau gordeko dogu
betiko bihotzean!*

Eskerrik asko Gari izan zarana izateagatik

Bragado-Azpiri familia

Alluitzetik munduari begira

Hantxe ikusten zaitut, Gari, Alluitzen, hegaz arranoak lantxik, munduari begira, guri begira, isil-isilik. Alluitz ikusi, eta zeugaz akordetan nazelako beti. Lo-zaku barria be hantxe estreinatu zendun, nun bestela! Hantxe pasatu zendun gaba, izarrei eta iretargiari begira, Alluitzeko tontorrean, edurretan. Alluitzen jarri zendun "hitzordua gailurrarekin". Liburu hori euskeratu gura izan dozu beti, Juanjo San Sebastianen "Cita con la cumbre". Mendiari buruzko libururik ederrera dalako zuretzat. Horixe izan da zure ametsetako bat, "hitzordua gailurrarekin", eta bete dozu. Euskerak eta mendiak lotu zaitue beti, eta askatu aldi berean, eta bide horri ekin deusazu eten barik. Jarraitu, ba, lagun, tontorrik tontor, munduari begira, guri begira. Maite zaitugu. Agurrik ez!

Mikel Azkarraga Etxegibel - Abadiño

Durangaldeko heraldika, kultur ondarea

Anboton ikusten ditut, aldiero, aldizkari honen laguntzaileak diren hamabi udalen sinboloak. Heraldika Euskal Herriko kultur ondarea da, baina balore eskasa ematen zaio eta, sarritan, ehundaka urte dituzten armarien orde logotipo berriak erabiltzen dira. Adibidez Abadiñok eta Berrizek bere blasoi ederrak baztertu dituzte eta horren orde *a* eta *b* ximple bat erabiltzen dute hurrenez hurren. Durango eta Elorrioko logotipoak, aldiz, gutxienez estetikoki politak dira, baina ez dago arrazoirik ohiturazko ezutuak ahazteko.

1986. urtean Bizkaiko Batzar Nagusiek lurraldeko blasoiak aldatu zuten, bi otsoak eta beste pieza batzuk kenduz. Horrela baztertu zen XVI. mendetik erabilitako ezutu dotorea. Aldaketa hori oinarri historikorik gabe egin zen eta, gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiak ere logotipo bat erabiltzen du.

Zorionez, udal gehienek ez dute eredu hori jarraitu eta hemen ditugu Atxondo, Garai edo Iurretako blasoiak, haritzaren enborrean bi otso gurutzatu harro erakusten dituztenak.

Andoni Esparza Leibar - Heraldikan aditua

Aisialdian hezkidetzat sustatzen

Jolastordua zen Izarneri eskolatik gehien gustatzen zitzaiona, ikasgelatik atera eta aire librean lagunekin jolastea maite zuen. Urte hartan, beraz, ikasturtea hasteko irrikaz zegoen, izan ere, ordura arte haurtzaindegiaren jolasgunean baino ezin zuten jolastu, baina hura bukatua zuten, jolasgune osoaz gozatzeko aukera izango zuten.

Ikasturteko lehenengo egunean, beraz, atsedendiko tartea iristean, korrika atera zen Izarne kanpora, jolasteko irrikitan. Hara iristean, baina, ez zen guztia hain ederra izan. Jolastokiaren erdi-erdian ia jolas eremu osoa okupatzen zuen futbol zelai bat zegoen, jolastoki hartan egin zitekeen jolas bakarra futbola izango balitz bezala. Kontua ez zen Izarneri ez zitzaizola futbola gustatzen, baina berak beste jolas batzuk ere maite zituen.

Hala, zegoen aukera bakarra jarraituz, behintzat futbolearen aritzea pentsatu zuen, baina:

–Ez Izarne, ezin duzu futbolearen jolastu, zu neska zara eta neskek ezin dute futbolearen jolastu, ez dakizue jolastena eta.

Behin eta berriz ahalegindu zen Izarne, jolastu nahi zuela eta jolastuz ikasiko zuela jolastena eta... Baina alperrik, eskolako jolastokian neskek pasa ezin zezaketen lerro bat zegoen laukizuzen izugarri bat eratuz mutur bakoitzean ate bat zutela, eta barruan mutil talde bat larruzko baloi bati ostikoka. Neskak, beraz, jolastokiaren alde batean gelditzen ziren ia ezertan jolasteko tokirik gabe, eta Izarneri hura aldatu beharra zegoela iruditu zitzaion.

–Lagunduko dizut nik ere Izarne, niri futbolearen aritzea gustatzen zait baina nire lagun guztiekin bada bakarrik, bestela ez dut jolastuko.

Arkaitzen, bere ikaskide eta lagun handia, eta hura entzutean Izarne bere asmoen berri eman zion.

Eskola orduak bukatzean korrika joan ziren biak plastikako irakasle Ainhoarengana laguntza eske, eta hark gustu handiz lagunduko ziela esan zien. Pintura poteak eta pintzelak hartu eta kanpora atera ziren.

Hurrengo egunean eskolara iristean hura izan zen hura sorpresa, haur, guraso eta irakasleek hartu zutena. Jolastokian ez zen futbol zelairik inon ageri, ez zegoen eremua mugatzen zuen lerro bakar bat ere, eta horren orde jolas eremu guztia kolore bizi eta alaiz zegoen margotuta. Izarne eta Arkaitzek aldaketa haren arrazoiak berri eman zien ikaskideei eta jolastoki berrian jolas pila batera jolastu zezaketela esan zien, beti ere jolaskide guztien nahi, desio eta eskubideak errespetatuta.

Ordutik aurrera jolas berriak ikasteko gogoz irteten ziren haurrak atsedendian, eta hainbat probatu zituzten, harripaketa, ezkutaketa, kanikak, zapitxoarena, Asterix eta Obelix... Eta baita batzuetan futbola ere, eta Izarne erakutsi zuen bera ere gol ederrak sartzeko gai zela.

Kimuak Aisialdi Elkartetik garrantzia handia ematen diogu gure egitasmo eta dinamika guztietan haurren aukera berdintasuna, errespetua, talde izaera sustatzeari, horregatik da hezkidetzat gure taldeko izaeraren balio garrantzitsuenetako bat.

Uztailaren 16tik 28ra balio hau eta beste hainbat landuz ezin hobeto pasatzeko udaleku finkoak antolatu ditugu bederatzita eta hamalau urte arteko haurrentzat. Anima zaituzte! Neskak eta mutilak ez gara berdinak, baina aukera eta eskubide berak merezi ditugu, baita aisialdian ere!

Kimuak elkartea

Sei hankako mahaia



Aitziber Irigoras EAJ

DURAN20

Hasia da jada 2020ko Durango zelaia izango dan irudikatzen prozesua. Tokiko Agenda 21eko sabelakurreko lau urteetan zehar emaitza ikaragarriak erdietsi eta gero, dagoeneko heldua da unea aurrepausoa emateko, eta etorkizuneko Durango danon artean imajinatzen. Horretarako, zabalik dago prozesu barria, hasia da parte-hartze prozesua, zertarako eta durangarrok gure herriaren etorkizuna marrazteko, gure ondorengo jaraiantza zehazteko. Ohikoa dan legez, parte hartzeko foroak antolatu dira, eta, deialdi zabala egin da: herritar oro dago gonbidatuta. Parte hartzeko ildo barriak be atondu dira; Facebook eta bloga prest dagoz. Durangarron erabakietan esku hartzeko aukera hobe eta zabalagorik aurraketea ez da erraza izango! Eta ez edozein erabakia gainera! Ingurugiroari buruzko ildoak zehaztuko dira, noski, baina baita gizarte ekintzen arlokoak, hirigintzari lotuak, gure herriko merkataritzaren gainekoak edo tagazterien esparrukoak be. Kontrakoa uste izan arren, prozesu parte-hartzaile honek bere baitara batzen dau Uriaren garapenerako beharrezkoak diren arlo guztiak, ingurugiroa eta gainerakoak.

Mugabako lan honetan egon dira, eta, zoritxarrez, egongo dira, euren talaia intelektual elitistatik prozesuaren parte-hartzea arbuia-tuko dabenak. Prozesu parte-hartzaileen teoriko horiek, demokrazia era hau maiz ahoan (eta lekuz kanpoko karteletan) izanda, ez dabez euren eskuak zikintzen eguneroko lan xumean. Euren erosotasun antzuan bizi dira, berba potoloak eta kontzeptu hutsak erabili, eta, gehienetan, horiek guztiak ustezko arerio politikoari aurre egira botaz, edo danon dirua erabili gure herriko hormetatik kendu behar izango doguzan panfleto itsasorretan. Ez dabe lanik egin nahi kaleko jendeagaz, euren taldeetatik kanpo bizi diren aitite edo neskatuekin, eta klasisismoaren adierazgarri hau prozesu parte-hartzaileari kritika eginez estaltzen dabe. Zertarako burua lanean kantsatu boikot egitea errazago bada? Zarata eta sasi guztien gainetik, durangarrok gure Uria imajinatuko dogu, gure Durango 2020an irudikatuko dogu, eta, fede oneko ekarpen guztiekin, behar hori auzolanean egin dogu!

Laguntzaileak:

BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko maiatzaren 18a
10. urtea - 459 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazio burua:
Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.

Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.

Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.

Argazkilaria: Kepa Aginako, Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.

@anbotokultura

KULTURA >

MUSIKA >



Bideografik

“Hertzainaken kanta ezagunenak gehiago higitzen ez dugu kolaboratu gura izan”

Ghetto taldetik sortutakoa da Ghertzainak. Ghetto taldeko lau kidek Hertzainaken bertsioak egiteko boskotea osatu dute, bateria-jole berria gehituta. Entsegu aurretik, Atxondoko baserrian erantzun diete galderei Abaunza anaiek (Unaik eta Josuk) eta Mikel Azkaratek

Zelan egin duzue Ghetto-tik Ghertzainak-era bidea?

Unai Abaunza: Ghetto taldeko lau musikaririk osatzen dugu Ghertzainak. Lehengo bateria-jotzailea Venezuelan dagoenez, kide berri bategaz dihardugu Ghertzainak-en. Aurten bateria barik egongo ginela aurreikusita, eta geldirik ez geratzearen sortu dugu proiektua.

Nor da azken gehitu zaizuen bateria-jotzaile hori?

Josue Abaunza: Abadiñoko Ibai gehitu zaigu, Kruders eta Tribute to RIP taldeetan ere jotzen duena. Beti dago jotzeko prest.

Noiz hasi zineten honetan?

Mikel Azkarate: Bi-hiru hilabete izango dira hasi ginela.
U. A.: Oso erritmo ‘karibearrean’ goaz, baina. Tarteka, Ghetto taldeagaz jotzeko kanta berriak ere sortzen hasi gara, gainera.

Zelan sortu zen Hertzainak taldearen bertsioak egiteko ideia?

M. A.: Laugarren baxujoleagaz gabiltza, eta apur bat nekatuta gaudeen denei Ghettoaren abesti berdinak erakusteaz...

U. A.: Eszedentzia hartzeko aprobetxatu dugu guk ere!

Zergatik Hertzainak?

M. A.: Formazioagatik, batetik. Jendeakinoiz komentatu izan digu

Ghetto Hertzainaken antza daukela, eta horrela bururatu zaigu.

U. A.: Platerueneko Greatest Hits Gauan jotzeko aukera etorri zenean, aukeratu genuen Hertzainaken bertsioak prestatzea. Saxoa zeukan, eta denak koadratzen zuela ohartu ginen.

“Bateria barik egongo ginela aurreikusita, geldirik ez geratzearen sortu dugu proiektua”

Zeren arabera aukeratu dituzue bertsionatuko dituzuen kantak?

M. A.: Ez dugu topikoak izan nahi, ez ditugu Hertzainaken kanta ezagunenak joko, horiek gehiago higitzen ez dugu kolaboratu gura.

J. A.: Aitormena kanta horregatik alboratu dugu, adibidez.

U. A.: Beharbada jendearentzat ezezagunak direnak ere joko ditugu. 564 kanta, instrumentalean joko dugu, esaterako. Kantei gure ikutua emango diegu.

J. A.: Izan ere, Hertzainak ere kanta berdina bakoitzean era batean jotzen zuen! ■ I. Esteban



Bideografik

Ghettoaren bigarren diskoa grabatu gura dute datorren urtean

Hertzainak taldearen hamaika kanta eskainiko ditu Ghertzainak boskoteak, Abadiñoko San Trokaz jaietan, bihar.

Trikitilari baten kolaborazioa izango dute *Hertzainak* kantarako. Iurretako Petite trikitilaria fitxatu dute. Esan dutenez, “bihar gauean geugaz kolaboratuko duen bertsolariren bat topatzea ere espero dugu”.

Gramones taldeko arabarrek ere joko dute, bihar, Zelaietan. New Yorkeko Ramones punk taldearen bertsioek itxiko dute Zelaietako San Trokaz jaietako bertsioen gaua.

Ghertzainak talde honetan eurekin bateria jotzen jardun

duen Ibairi “agur duina” egitea gura dute datorren urtean. Eta baita Ghettoaren bigarren diskoa grabatzea ere, estudioan: “Hertzainak taldearen hamahiru hamalau kantako erreperitorioa prest daukagunean Ghettoarako dauzkagun ideiei forma ematen hasiko gara”. Datorren urtean, “Inaki bueltatzen denean”, ekin gura diote grabazioari.

Platerueneko Greatest Hits Gauan eskaini zuen lehenengo zuzeneko Ghertzainak. “Jendea kantuan eta dantzari ikusteak asko motibatzen gaitu hurrengo kontzertuei begira”. Biharkoaren ostean, Mendiolako jaietan joko dute, uztailean.

BERTSOAK >

Durangaldeko txapela Lazkanok jantzi du, Magdalenak baino bost puntu gehiagorekin

Bizkaiko txapelketan aritzeko zuzenean sailkatu da, eskualdeetako finaletan lehen postua lortzen dutenek legez



Guztira 415 puntu batu zituen Gorka Lazkanok bertso finalean, eta Durangaldeko txapela jantzi zuen berriztarrak, txapeldunordeak baino bost puntu gehiago lortuta. Peru Magdalenak 410 puntu lortu zituen, eta saioko bigarren postua. Geldialdi luze baten ostean bueltatu da durangarra txapelketara.

Zelaietako San Trokaz jaien bezperan, maiatzaren 11n jokatu zuten Durangaldeko Bertsolari Txapelketaren finala, Abadiñoako probalekuan. Pello Mugerza malla-

Bizkaiko txapelketarako gainontzeko sailkatuak puntuen arabera erabakiko dira

biarraren eskutik jaso zuen Lazkanok txapela. Honenbestez, Bizkaiko txapelketarako zuzenean sailkatu da berriztarrak.

Abadiñoan, 150 entzuleren aurrean, sei bertsolari aritu ziren Lazkano eta Magda-

lenagaz batera: Ander Salaberria, Garikoitz Sarriugarte, Eñaut Uruburu 'Lepotxo' eta Julen Sololuze.

Udazkenean jokatuko dute Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: bost kanporaketa, bi finalurre eta finala. Eskualdeetako txapeldunak zuzenean sailkatuko dira, eta Bizkaiko txapelketarako gainontzeko sailkatuak puntuazioaren arabera erabakiko dira.

Arratiako finala Iñaki Iturriozek irabazi zuen (390,5). Eta azken finala ekainaren 10ean jokatuko dute: Busturialdean. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Ander Urkiaga
Ikaslea



Berba gutxitan

Zergatik ez zaion hezkuntzari murrizketarik oparitu behar? Bada, hezkuntza sistemari austeritatea erregalatu gero irakasleek ezingo luketelako euren beharra duintasunez egin.

Eta matematika irakasleak bere lana duintasunez egin ezean, ikasleek ez luketelako hiru artaburu artaburu bi baino gehiago direla ikasiko, ezta artaburu bakarra ere gehiegi dela helburua artasoro bat lantzea ez bada behintzat.

Eta euskara irakasleak bere lana duintasunez egin ezean, ikasleek ez luketelako ikasiko euskara dela Euskal Herrian inkomunikazio ororilepoa emateko bidea; eta ikastetxeetako ikasleek hitz egin gura dute, baina horretaz gain, haien hitza entzuna izan dadila nahi dute.

Hezkuntza sistemari austeritatea erregalatu gero irakasleek ezingo lukete euren lana duintasunez egin

Eta ingeles irakasleak bere lana duintasunez egin ezean, gure ikasleek ezingo lukete hain europarrak garen Europa honetan Angela Merkelek agindutakoa ulertu, eta beraz, bete. Angela Merkelek badaki ingelesez.

Eta gaztelera irakasleak bere lana duintasunez bete ezean, ikasle aplikatuenek ere, seguruenik, ez lukete Antonio Machado, Miguel Hernandez, Mario Benedetti edota Jose Saramago irakurriko. Saramagok bazekien gaztelerez.

Eta ekonomia irakasleak bere lana duintasunez bete ezean, herri honetako ikasle prestuek sinetsi ere ez lukete sinetsiko beste mundu bat posible dela, beste ekonomia eredu bat posible den neurrian. Ekonomiak berez eko-nominak ere ahalbidetzen dituelako: garbiak, ama-lurrarekin errespetuzko harremanean oinarriturik.

Irakasleek euren beharra duintasunez egin ezean, etorkizuna ere ez delako duina izango. Eta hezkuntzari murrizketarik inposatu ezean soilik saihestuko dugu gaur ikasle diren horiek berberak orain artean egindako akats berdinak errepika ez ditzatela, berriz ere harri berean estropezu egitea saihestuz.

Baina noski, gizakiak gara.

KRONIKA

Amaia Ugalde

Gorka Lazkano eta Peru Magdalena irla bakarri baten elkartu dira Abadiñoan, txapelketako buruz burukoan. Lazkano aspalditik zegoen bertan, bakarrik bizi zelakoan. Baina, nobedadea: Magdalena ikusi du, eta honek diotso 2.000 biztanleko herri bat dagoela mendiaren atzekaldean. Bazekitela Lazkano bertan zebilela, eta uste zutela bakarrik bizi zen hippya zela. Lazkanok ez du herrira gerturatu gura izan; ederto ezagutzen du irla, eta bere bizimodu bakartiagaz jarraitu gura izan du.

Hippyak, bada, eskualdeko txapela irabazi du. Puntuetan oso gertu izan du Magdalena. Azken urteotan txapelketan parte hartu barik egon eta gero, freskotasunez bueltatu da Peru. Txispagaz ibili da, durangarrez kantatzen. Lazkanok saio erregularra egin du. Irla bakartian bezala, txapelketan daukan esperientzia erakutsi du, nahiz eta saio biribila ez egin.

Amoranteak eta gabarra

Berotasun apur bat falta izan zaio finalari, baina izan ditu puntu gorenak: Athleticeko gabarran angulak harrapatzen ibili dira Lazkano eta Sololuze. Salaberria eta Magdalena maitale izan eta gero, morbo bako bikote bihurtu dira, eta Uruburuk Tarot kartetan bikoteak engainatzen duen ikusten ote duen galdetu dio Magdalenari. Honek baietz, "orgia montau eben, bastante edarra/ atara eben kondoiek eta baita gabarra / zu zara enteratu ez zaren bakarra". Aurretik kantatutako bertsoei erreferentzia ugari egin dizkiote saio osoan. Abadiñoan jaiak ere izan dituzte berbagai; bakarkakoan Sarriugarte ederto ibili da koadrilakoak etxean zituela eta Santrokazetan juergan irtenda.

Beste eskualdetako puntuen zain orain. Ea Bizkaiko Txapelketara Lazkanogaz batera durangaldeko beste doinurik iristen den!

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

DF bertsozale eskola 2012
MAIATZAK 24 19:30ean
DF BERTSOZALE ESKOLA
Plateruenako anfiteatroan.

ATHLETIC CLUB BILBAO
MAIATZAK 25
ERREGE KOPAKO FINALA
20:00 saiheskia, patatak, garagardoa
22:00 Pantaila erraldoia

kantulagun
MAIATZAK 26 Kantuzaleen txokoa
KANTULAGUN
13:00 Santa Ana. 15:00 Bazkaria

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300


SALIR
Coliflor Circo
(Italia-Francia-Chile)

MAIATZAK 26 • 20:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776



BEGIRA '12

Photo Festival

Durango

01.06.12 - 15.07.12

Erakusketak_tailerrak_hitzaldiak_proiektzioak

www.begiraphoto.com

BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



AURKEZPENA >



Hamazazpi elkarteren parte-hartzeagaz antolaturiko Euskal Astea abiatuko dute

Asteburuan hasi eta ekainaren 16ra arteko egitaraua osatu dute: dantzak, musika, antzinako jokoak, ahozko tradizioa...

Elkarteetako eta udalaren ordezkariak aurkeztu dute Euskal Aste 'luzea', asteburu honetan hasi eta ekainaren 16ra artekoa. Hamazazpi elkartek parte hartu dute, eta horien lana eskertu zuen Andoni Iruarrizaga Durangoko Udalaren Kultura zinegotziak: "Jende askoren ahaleginari esker gauzatu daiteke Euskal Astearen egitaraua".

Euskal dantzen jaialdia ekarriko dute, hasteko, Tronperri dantza taldekoek Euskal Astea. Alberto Izagirre taldekidearen berbetan, "gure folkloreaken aberastasuna-

ren erakusle" izango dira asteburuko emanaldiak. Muskildi, Lantziego, Arrasate eta Agoitzeko taldeak gonbidatu dituzte zapatuko eta domekako emanaldietara.

Aurrerago, Aukeran dantza taldearen *Burnia* obra ikusteko aukera eskainiko dute. Ekainaren 8an izango da emanaldia, San Agustinen, 22:00etan.

Gerediaga elkartek, bigarren urtez jarraian, Dantzaroa emanaldia aurkeztuko du. Ekainaren 9an izango da hori, eta 200 dantzari batuko ditu ekimenak, Ezkurdiko emanaldian.

Muskildi, Lantziego, Arrasate eta Agoitzeko taldeak gonbidatu dituzte

Aukeran taldearen 'Burnia' obra ikusteko aukera eskainiko dute

Hori baino lehen, Durango Hiria konposizio lehiaketareniazko edizioa irabazi zuten obrak estreinatuko dituzte, ekainaren 2an, San Agustin kulturgunean. Silboberri txistu elkartek gonbidatuta, Gasteizko udal folklore akademiako txistulariek ere parte hartuko dute emanaldian.

Ume eta gaztetxoei begira antolatu dituzte beste hainbat ekitaldi: Julene Azpeitia literatur lehiaketaren sari banaketa, euskal joko tradizionalak, umeentzako zinea, artzainen jolasak, eskolarteko pintura lehiaketa...

Hitzordu batzuk

Maiatzak 19, 19:40
Euskal Dantzen Jaialdia, Andra Mariako elizpean

Maiatzak 25, 20:30
Organo kontzertua, Jesuiten elizan

Maiatzak 28, 09:45
Umeen euskal joko tradizionalak, Landako polikiroldegian

Ekainak 2, 20:00
Txistu kontzertua, San Agustin kulturgunean

Ekainak 8, 22:00
'Burnia', San Agustin kulturgunean

Ekainak 9, 12:00
Durangoko Ahotsak proiektuaren aurkezpena

Ekainak 10, 12:00
Julene Azpeitia literatur lehiaketaren sari banaketa, San Agustinen

Bestalde, Fernan Ruiz Udalaren Euskara saileko ordezkariak Euskal Astearen aurkezpenean azaldu duenez, Euskal Herriko Ahotsak proiektuagaz bat egin du Durangoko Udalak. "Euskararen ahozko hondarea bildu, digitalizatu eta internetean eskuragai ipini du udalak", azaldu zuen Ruizek. Ekainaren 9an aurkeztuko dituzte ikerketaren emaitzak.

Ekainaren 16an, Tabira Musika Bandaren, Elgoibarko dultzaineroen eta Bergarako erraldoien kontzertuagaz emango 'aste luzea-ren' egitaraua amaitutzat. ■ I. E.

MUSIKA >

Udako oporraldia musikagaz gozatzeko saioak egingo dituzte

Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolak antolatu ditu, lau eta hamabi urtekoentzako

Lau eta hamabi urte arteko umeentzako eskaintza dira Udaleku Musikalak, Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan izango direnak. Musikaren, mugimenduaren, dantzaren, antzerkiaren eta sormenaren bitartez parte-hartzaileen gaitasun artistikoa eta emozionala garatzea dute helburu udaleku hauen antolatzaileek.

Parte hartzen duten ume batzuentzat, musikagaz duten lehenengo hartuemana izango dira Bartolome Ertzillako udaleku musikalak; instrumenturen bat jotzen dakitenei, aldiz, artearen bitartez elkarrekin komunikatzeko baliabideak eskainiko dizkiete Musika Eskolako saioek.



Lau orduko saioak egingo dituzte ekainaren 25etik uztailaren 6ra. Durangoko Montevideo kaleko musika eskolan bertan eman daiteke izena, edo www.durangomusika.net helbidean (125 euro). Ekainaren 15era arte eman dago horretarako epea.

Saxo kontzertua
Musika eskolako saxo ikasleek kontzertua eskainiko dute, maiatzaren 21ean, 17:00etan, eskolako areto nagusian. Kantu ezagunen bertsiak eskainiko dituzte, eta bandaren eta orkestraren laguntzarekin ere arituko dira. ■ I. E.

Umeen gaitasun artistiko eta emozionala garatzea dute saioetako helburu

ANTZERKIA >

Kurutziagako antzerki taldearen obrak, kalean eta antzokian ikusgai

'Hanketatik burura' eta 'Zapatilen kasua' obrak prestatu dituzte ikastolako 48 antzezle gaztek, gaurko eta biharko

Hanketatik burura konpartsa-ren kale antzerkia eta *Zapatilen kasua* antzezlan eskainiko dituzte asteburuan, Kurutziaga ikastolako antzerki taldekoek, Durangon. Ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako 48 ikasle dira irailetik ikuskizun bi horiek prestatzen jardun dutenak.

Hankapaluekin kalejiran ibiliko dira 19:00etan kulturgunearen inguruan

Aurreratu dutenez, "amodiozko istorioa da 'Zapatilen kasua'"

Gaur eta bihar, maiatzaren 18an eta 19an, Durangoko San Agustin kulturgunean hasita, Durangoko kaleetan zehar eskainiko dute *Hanketatik burura*. Hankapaluekin kalejiran ibiliko dira 19:00etan San Agustin kulturgunearen inguruan hasita.

Kalerako pentsatu duten antzezlan hori izango da 22:00etan San Agustin kulturguneko oholtzatik eskainiko duten ikuskizunaren haria: antzerkia baliatuz, amodiozko istorio bat kontatuko dute ikasle gazteek. Aurreratu dutenez, "txankleta baten eta zapatila baten arteko amodiozko istorioa da *Zapatilen kasua*".

Antzerki tailerraren ardura-dun Jose Martin Urrutia *Txotxek* azaldu duenez, panpinak baliatuz jardungo dute asteburuko emanaldi horietan. ■ I. E.

12.000 BAIETZ!

EROSKI bidaiak
zurekin

EGIN HARPIDEDUN!

ANBOTO ETXERA ETA ZU ASTEBURU-PASA EROANGO ZAITUGU



Jasone Trojaola (Abadiño)



Gaizka Ellakuriaga (Durango)

EROSKI BIDAIKek eskainitako asteburu pasak irabazi dituzte Jasonek eta Gaizkak Anbotoko harpidedun eginez. Asturiasen hain zuzen ere.



2012ko harpidedun berrien artean ere EROSKI BIDAIKek emandako 6 asteburu-pasa zotz egingo ditugu, eta Anbotoko harpidedun guztien artean aste bateko egonaldia Kanariar irletan.

HARPIDEDUN EGITEKO **3** AUKERA DITUZU:

1 anboto@anboto.org
helbidera idatzi.

2 946816558
telefonora deitu.

3 Kupoia bete eta
bidali Anbotora.

ANBOTO ASTEKARIA - Bixente Kapanaga 9 - 48215 IURRETA



Izena Abizenak

Telefonoa E-posta

Helbidea..... Herria.....

EDERTASUN GIDA

ILEAPAINDEGIAK



- Ana Camarero
- Estetika zentroa dauka Durangon



Kleopatraren sekretua

Gaztetzeko teknikak lantzen dituzue. Nondik dator ideia?

Kleopatrak astemearen esnea edaten zuen, bere azala leun eta distiratsu mantentzeko. Gaur egun badakigu gaztetzeko efektu haiek azido laktiko eta tartarikoen konbinazioz sortzen zirela. Guztiz frogatuta dago fruten azidoak onuragarriak direla azalarentzat. Hildako zelulen gehiegizko kapak eliminatzen dituzte.

Zertan igartzen da aldea?

Azala hidratatzeko eta gaztetzeko eragin argia daukate. Gainera, arrakasta dute zimurren sakoneran zein azalaren erliebean. Sistema berri-tzaile bat dakarte, esfoliazio progresiboa sustatuz. Azalaren pH-ak balore neutroetan irauten laguntzen dute, eta hipoalergeniko bihurtu.

Tratamendu mailakatua ere eskaintzen duzue, ezta?

Bai. Azal motaren eta egoeraren arabera pertsonalizatzen dugu. Atalkako esfoliazio prozesuak ondorio hauek dakartza: hidratazio sakona, argitasuna, azal uniforme eta inperfekzioen zuzenketa. Esfoliazio mailaren arabera, 20, 40 eta 60 mailetako tratamendua eskaintzen dugu. Eragin bikoitzeko geruza ere badaukagu, berehalako hidratazioa eta esfoliazio iraunkorra sortzen dituen.



ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa

Nerea Mallabiarrena • Merche Garcia
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAKO masaje indiarrek antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

@anbotokirola

KIROLAK >

“Aurten bizitako uneak barruan gordeta geratuko dira betirako”

Jon Ander Crende ‘Xapo’ (Elorrio, 31 urte) Errege Kopa eta ligako finaletan aritu da Ordizia Rugby Taldeagaz. Bost urte daramatza taldean

Zelan bizi izan duzu final bien harira Ordizian sortu zen giroa? Bereziak izan dira. Athletic-egaz bizitakoaren antzekoa izan da, baina beti ere gure errealitatean, Ordizian eta herri mailan. Errugbia inork ez zuelakoan gustuko eta bat-batean denak hari buruz berbetan aritu dira. Eguneke 24 orduetan ez dut izan besterik buruan. Azkeneko apur bat nekagarria ere izan da, baina mundu guztiari gustatzen zaio horrelako uneak bizitzea.

Elorrian ere gogorazazi dizute ?
Bai, Elorrian ere bai. Azkenean lagunak hemengoak ditut. Final biak ikustera joan ziren eta pankartak ere egin zituzten.

Eta orain, zurrumbiloaren osteko barean zaude?
Kriston aldea dago. Beste gauza bat da.

Ligan, play offetako finalerdietan Gernika kanporatu zenuten.
Aurretik ligan eta Errege Kopan irabazi genien, baina partidu bakarrera beti dago arriskua. Horregatik indartsu irten ginen eta hamabost minutuan abantaila polita hartu genuen. Hortik aurrera apur bat erlaxatu eta aldeari eutsi genion.

Valladolideko finalean 27-10 galdu zenuten Quesos Entrepnaren aurka. Partidu txarra irten zitzaigun. Presioagatik edo ez dakit zergatik, ez genuen bat ere jokatu.

Hala ere partidua amaitzeko ordu erdiren faltan partidua ia parean zegoen.

Atsedena dira joan ginenean horixe esaten genion elkarri, ez genbiltzala ondo, baina partiduan geundela eta bagenituela aukerak. Entrenatzaileak ere garbi esan zigun pilak ipini behar genituela. Zoritxarrez gu baino gehiago izan ziren. Aherioa norbera baino gehiago denean ezin daiteke ezer egin.

Ligako txapelduna play off bidez erabaki da lehenengoz. Zer irudituz zaizu sistema hori?

Nik nahiago dut liga erregularra, onena saritzen duelako. Aurten go sistemaren bidez, partidu batean galdu dezakezu urte

☞ **Errugbia inork ez zuelakoan gustuko eta bat-batean denak hari buruz berbetan** ☞



osoko lana. Gainera, denboraldia asko luzatzen da eta azkeneko nekatuta heltzen zara. Dena dela, liga ez dugu fisikoki txarto geundelako galdu, buruak huts egin digulako baino.

Apiril amaieran Errege Kopa irabazi zenuten Cetransa El Salvadorren aurka (30-27).

Partidu zoroa izan zen. Atsedena dira 8-20 galtzen joan ginen. Aldageletan entrenatzaileak errieta handia egin zigun, eta bigarren zatian partiduari buelta ematea lortu genuen.

Zelakoak izan ziren partidu osteko ospakizunak?

Egunean bertan ongietorria egin ziguten Ordizian. Kale bazter denak beteta zeuden. Hunkigarria izan zen. Aurten bizitako uneak barruan gordeta geratuko dira betirako.

Ordiziako zaleen erantzuna sarritan azpimarratu duzue.

Itzela izan da. Final bietan hantxe egon da herri osoa, gure ondoan animatzen. Ordiziako baserritar batek esan zuen: “Finalera banoa nork zainduko ditu ardiak? Herrian ez da inor geratuko!”. Ez zebilen oso erratuta.

Aurten listoia altu ipini duzue. Datorren denboraldira begira zein da helburua?

Liga irabaztea. Hori izango dugu lehentasuna. Urte bian talde

☞ **Final bietan hantxe egon zen herri osoa, gure ondoan animatzen** ☞

☞ **Baserritar batek: ‘finalera banoa nork zainduko ditu ardiak? Herrian ez da inor geratuko’** ☞

☞ **Datorren urtean liga irabaztea dugu lehentasuna; arantza kendu nahi dugu** ☞

berdinaren kontra galdu dugu eta barruan dugun arantza hori kendu nahi dugu.

Oskar Astarloak, elkarrizketa batean, esan zuen Elorrian erretiratzea gustatuko zitzaioala.
Neuri ere bai. Pare bat urtean taldeari ahal denean lagundu, ondo pasatu lagun artean... Polita litzateke.

Zein da zure egoera Ordizian?
Etxeko bat modukoa naiz. Ez dut ez kontraturik eta ez soldatarik. Bidaietako gasolina ordaintzeko ateratzen dut eta justuan. Errugbiak ez du futbologaz zerikusirik handirik. Hala ere, gustura nago eta datorren urtean Ordizian jarraituko dut.

Aurten jarraitu duzu Elorrio Rugby Taldearen ibilbidea?
Oso liga ona egin dute. Jende berria etorri da, Urdin Ugarte tartean, eta igartzen da. Onena emanarazi die denei. Batzuetan eurekin entrenatu izan dut.

Elorrian hasi zinen errugbian jokatzeko. Zelan sortu zitzaizun Ordiziara joateko aukera?
Elorriotik joanda han zebiltzan Urdin Ugarte eta Oskar Astarloa ere. Entrenatzaileak taldean nahi ninduen eta beste biek animatu egin ninduten. 25 urte nituen orduan eta joatea erabaki nuen. Oso pozik nago pausu hori eman izanaz. ■ J. Derteano



Irabaztera behartuta eta matematika kalkuluen zain

Tabirako Baque beste emaitzen menpe dago maila ez galtzeko



laz EBA mailatik jaitzi ziren eta aurten ere maila galtzeko arriskua dute. Kepa Aginako

Jaitziera faseko azkenengo jardunaldira etxeko lanak egin barik heldu da Tabirako Baque saskibaloitzaile eta maila galtzeko arrisku handia du. Lehen mailan geratzeko gauza bi gertatu behar dira: Tabirakok La Alcohola azkenengo sailkatuaren kontra irabazi behar du, eta Biok Zerbitzuak taldeak Lizuan.com taldearen kontra galdu. Azken talde bi horiek gipuzkoarrak direnez, mesede disimulatu baten arriskua ere hor dago.

Harrigarria da Tabirakoren eta Biok Zerbitzuaren artean dagoen parekotasuna. Ez litzateke harriztekoa durangarrek azken sailkatua menderatzea

eta gipuzkoarrak liderraren kontra galtzea. Modu horretara, garaipen kopuruan berdinduta, elkarren kontrako partiduek hartuko lukete garrantzia, baina arlo horretan ere berdinduta daude: bakoitzak garaipen bana du eta alde berdinez irabazita (10 puntuko alde). Beraz, liga osoan sartu eta jaso dituzten puntuetan dagoen aldeak erabaki dezake jaitziera. Datu horretan ere ia berdinduta daude: Tabirakok aldeko 29 puntu ditu eta Gipuzkoako taldeak 30. Beraz, Tabirakorentzako nahikoa da puntu bateko aldeagaz irabaztea, Biok Zerbitzuak bere partidua galtzen badu.

Asteburuko partidua guztiak egun eta ordu berean jokatu dituzte: zapatuan, 18:00etan. Horrela, inork ez du abantaila izango jokatu. Tabirakoren partidua amaitzean, jokalariek eta klubeko ordezkariak Federazioaren webgunean ipiniko dute arreta osoa Biok Zerbitzuaren emaitzen zain.

Gazte taldekoekin jokatzeko
Tabirakok liga hasi zenetik izan ditu arazoak. Jokalari batzuk ez dira beti erabilgarri egon (lesioak, lan arloko konpromisoak...), eta gazteen taldetik jokalariek izan behar izan dituzte Alberto Alonso entrenatzaileak. ■ J. D.

Mallabiak eta Atxondok hanka eta erdi Herri Artekotik kanpora

Bizkaiko Herri Arteko Pilota txapelketa Durangaldeko ordezkari barik geratu ahal da asteburuan. Berriz, Durango eta Iurreta dagoeneko kanporatuta daude eta Mallabiak eta Atxondok txapelketatik kanpora dute hanka eta erdi. Joaneko partiduetan herri biek galdu zuten.

Mallabiak hiru mailatan galdu zuen Zornotzaren kontra. Gainera, gazteetan hiru tanto bakarrik egin zituzten. Beraz, Mallabiak hiru partidua irabazi behar ditu asteburuan eta horietako bat alde handiagaz.

Atxondok kadeteetako eta gazteetako partidua alde handiagaz galdu zituen eta nagusietakoa irabazi egin zuen Arrankudiagaren aurka.

Zestán Durango kanpoan geratu da. Lehenengo kanporaketako sei partidua irabazi dizkio Gernikak. ■ J. D.

Atzean parez pare ariko dira Antxia eta Waltary

Aurrelari sena dute, baina etzi, trinketeko finalean, atzeko koadroetan lehiatuko dira

Domekan, 10:30ean, San Trokaz Trinkete Sariko finalak jokatu dituzte Abadiñon. Nagusietan Iker Gordon eta Waltary Agusti Alonsok, Liher Gandiaga eta Ander Antxiaren aurka jokatu dute. Atzeko koadroetan sarritan ikusi ez den norgehiagoka eskainiko dute Antxiak eta Waltaryk, ohituago baitaude aurrelari aritzera.

Aurrean, berriz, pilotari biek ezagutzen dute ofizioa; Gandiaga, ordea, azken aldi sasoian dago. Gainera Antxia eta Gandiaga bikotea konfiantzagaz

Aurrean biek ezagutzen dute ofizioa; Gandiaga, ordea, sasoian dago

dabil. Finalerdietan, Gonzalez eta Ugarteren aurka, 38-34 atzetik heldu ziren partidua azken txanpara, baina segidan sei tanto egin eta finalera sailkatzea lortu zuten, ordu eta erdiko partidua borrokatuaren ostean.

Promesetan, orekatua
Gazteen mailako txapelak Etxebarria-Etxebarria eta Garcia-Urbe bikoteen artean izango dira. Azken horiek dira faberito Bizkaiko azpitxapeladunak direlako. Promesetan Zugadilturbe era Zilaurren-Gomez ariko dira nor baino norrago. Partidu orekatua izan daiteke. Lehenengoak esperientzia handiago dute, baina irabazteko komerriak izan ditzakete Zugadik sakean bat ere asmatzen baldin badu. ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Unai Zamalloa
Saskibaloitzaile



Azken txanpan sartuta

Maiatza aurrera doa eta berarekin talde askoren denboraldia ere amaitzean edo amaituta dago. Batzuek Bizkaiko txapelketak jokatu dituzte eta beste batzuk, ordea, Espainiako txapelketak jokatzeko dihardute. Egia esan, urteko ebaluaketa egiten hasteko sasoa ere bada eta talde batzuekin egin genezake dagoeneko.

Tabirakon denetik aurki dezakegu: nesken Lehen mailako taldeak azken urteetako denboraldi onena egin du, laugarren postuan sailkatuta. Egia esan, inork ez zuen hasieran horrelakorik espero, joan den urtea sailkapeneko zuloan sartuta igaro ondoren jaitziera postuak azken momentuan ekidinez. Alberto Molinak zuzentzen duen taldeak aurten eman duen erakustaldia itzela izan da eta gauzarik garrantzitsuenak: hurrengo denboraldirako taldea prest dago eta gora begiratzeko gainera. Zorionak!

Lehen mailako mutilen taldearen kasuan, ordea, ezin genezake berdina esan. Alberto Alonsok zuzentzen duen taldea, jaitziera postuetan dago eta, mirari bat ez bada gertatzen azken jardunaldian, kategoria galduko dute. Oso urte irregularren ondorio zuzena da hau eta, berriro ez gertatzeko eta hurrengo denboraldian beste aro positibo eta oparo bat hasteko, hausnarketa zorrotza egin behar dute taldean eta klubean.

Eskualdeko beste talde nagusiena, EBA mailako Zornotza Saskibaloitzaile Taldea da. Hauen denboraldia ez da aurrekoaren besteko ikusgarria izan, baina azkenean beraien helburu nagusia ederto bete dute: kategoria mantentzea. Hurrengo denboraldirako aldaketak egongo dira eta proiektuari beste bultzada bat emango dioten pieza berriak sartuko dira. Zorte on danori!

Izaera herrikoia izango du spinning maratoiak

Ekainaren 3an egingo duten ekimenak euskararen erabilera sustatzea du helburu

ITG Elkarteak spinning maratoiaren bigarren aldia antolatuko du ekainaren 3an, Durangoko Ezkurdi parkean (*Anboto Komunikabideak* ekimenako kolaboratzailea da). *Kirolean* ere euskaraz lelopean euskararen erabilera sustatu gura dute ekimenaren bidez. Izen-ematea

hasita dago, honako webgunean: www.bizieuskeraz.com.

laz lehiaketa moduan planteatu zuten spinning maratoia. Aurten lehiaketa kendu eta izaera herrikoia emango diote maratoiarik. Beraz ez da irabazterik izango eta parte-hartzaileen artean sariak zozkatuko dira. Guztira, 140 bizikleta ipiniko dituzte Ezkurdin eta spinning saioak hiru ordu iraungo du.

Alazne Castrejon antolatzaleetako baten esanetan "lazio esperientzia onak eraman gaitu aurten antolatuzera". ■ J. D.

140 bizikleta ipiniko dituzte eta saioak hiru ordu iraungo du



lazio spinning maratoia, Durangoko Ezkurdin.

argazki lehiaketa



2013



Durangaldeko egutegia 2012

anboto
komunikabideak



oinarriak

1. Parte-hartzaileak: 16 urtetik gorakoak

2. Gaia: "12 hile, 12 herri"

Durangaldeko 12 herrien argazkiekin osatu gura dugu egutegia hile bakoitzean herri bakoitzekoa jartzeko.

3. Berezitasunak: argazkiak kamera digital batekin egin beharko dira eta ondoko ezaugarriak izango dituzte:

- JPG formatuan bidaliko dira.

- Argazki bakoitzak 10000x6000 pixel izan behar ditu

Lan originalak aurkeztu behar dira eta ezingo dira izan beste argazki-lehiaketa batzuetan saritutakoak. Argazkiei ukituak egin ahal izango zaizkie, baina ezingo da gehitu edo kendu euren jatorrizko osaera aldatzen duen elementurik.

Irabazleei eskatu ahal izango zaie argazkia egiteko erabili zuten makina eta argazki originala aurkeztu dezatela, argazkiaren benetakotasuna egiaztatzeko.

4. Argazkiak aurkezteko epea: argazkiak aurkezteko epea **2012ko urriaren 1ean** amaitzen da. Epe horren barruan, noiznahi aurkeztu daitezke.

Behin lanak aurkeztu ondoren ezingo dira lehiaketatik erretiratu

5. Lanak aurkezteko modua: parte-hartzaile bakoitzak Durangaldeko herri bakoitzeko argazki bana aurkeztu beharko du (Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio eta Zaldibar). Guztira 12.

Argazkiak e-mailez edo CD batean aurkeztu daitezke, argazkilariaren datu guztiekin:

Argazki bakoitzaren izena. Argazkilariaren izen abizenak. NAN zenbakia. Helbidea. Adina.


Bidaltzeko helbidea: astekaria@anboto.org

Anboto astekaria

Bixente Kapanaga, 9

48215 Iurreta

informazio gehiago:
anboto.org



Ezkurdik lehenengo bider dastatu du igoyeraren gozoa

Derbi bi segidan irabazita batu dituzte behar zituzten puntuak



Iñigo Larrañaga entrenatzailea airean, Larrakozelain, joan zen asteburuan. Jon Iglesias

Denboraldi ia osoan igoera postuan egon arren, azkenengo jardunaldiko azkenen minutuetan segurtatu zuen igoera Ezkurdik, lurretako Bren aurkako derbian (0-1). Saillapean Salesianos gaintzeko derri gor irabazi behar zuten eta horretarako hainbat aukera izan zituzten, baina 82. minutura arte ez zen heldu Miguel Bertolen gola. Handik hamar bat minutura, Ezkurdiko jokalariek eta zaleek klubaren historiako lehenengo igoera ospatu zuen lurretako berdegunean.

Horrela, denboraldi hasieran markatutako helburua lortu dute: "Gauza bat da helburu moduan ipintzea eta beste bat

"Taldea ez zegoen irabaztera ohituta; nire lana ahal dugu mezua barneraraztea izan da"

lortzea. Denboraldiko zatirik handiena igoera postuetan eman dugu eta merezitako igoera lortu dugula uste dut", azaldu du Iñigo Larrañaga entrenatzaileak. Mentalizazioan egon da gakoa: "Taldea ez zegoen irabaztera ohituta eta nire lana [aurten izan du lehen denboraldia Ezkurdin] ahal dugu mezua

barneraraztea izan da. Taldean intentsitatea ezartzen ere saiatu naiz. Ez dugu beti lortu eta alde horretatik badugu zer hobetua datorren denboraldirako, baina oro har, lan oso ona egin dugula uste dut".

Hirugarren erregionalean gol gutxien jaso duen taldea izan da, Betolatza eta lurretako Bren atzetik. Aurrean, azpimarratzekoa da Xabier Bilbao eta Eneko Uriberen ekarpena, 14 eta 11 golekin, hurrenez hurren.

Nabarmentzekoa da, era berean, azken partidu erabakigarri biak derbiak izan direla, orain aste bi etxean 3-2 irabazi baitzioten Berriz Bri. ■ J.D.

Alain Ramirez Euskadiko txapeldunorde txirrindularitzan

Alain Ramirez 17 urteko durangarra errepideko Euskadiko txapeldunorde geratu da gazteen mailan. Mutrikun lehiatutako lasterketan, Calvariorako igoerak galbahe lana egin zuen eta gaintetik 20 txirrindulariko tropeltxo igarozen. Goitik helmugara elkar ondo zaindu zuten eta ez zen ihesaldirik sortu. Sprintean Caja Rural taldeko Peio Olaberria izan zen azkarrena eta Alain Ramirez (Beste-Alde Orue Eskola) bigarrena.

2010ean, kadete mailan, Euskadiko txapeldun geratu zen durangarra. ■ J.D.

Ekainaren 8tik 10era futbito maratonia egingo dute Berrizen

Berroiz eta Gorostia gurasoen elkarteak Berrizko 28. Futbito Maratoia antolatuko dute ekainaren 8tik 10era. Izena emateko epea ekainaren 7ra artekoa da (19:00 arte) Berrizburu kiroldegian, 110 euroren truke. Ondoren zozketa bidez erabakiko dituzte kanporaketak.

Gehienez 32 taldek parte hartu dezakete. Irabazleak 800 euro jasoko ditu; bigarren sailkatuak 500 euro; hirugarrenak 300 euro eta laugarrenak 200 euro. Sarien kopurua aldatu egin daiteke aurreikusitako moduan 32 taldek izena ematen ez badute. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

MAILA GORENA

Iurretako - Urduliz
Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain.
Berriz - Trapagaran
Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Mallabia - Meatzari
Zapatuan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.
Elorrioko - Natargas
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

MAILA GORENA

Presion Break - Astraburuko

Zapatuan, 17:15ean, Berrizburun.
LEHEN ERREGIONALA
Abadiñoako Gaztetxe - Iturritxu
Zapatuan, 15:10ean, Elorrioko udal kiroldegian.

PILOTA

Zaldibarko V. Txapelketa

Haur-kategoria B:

- **Mallabia - Markina**
- **Lea-Ibarra - Iurreta B**
- **Iurreta C - Berriz**

Kadeteak B:

- **Mallabia - Atxondo**
- **Iurreta - Markina**
- **Lea-Ibarra - Mañaria**
Domekan, 11:00etan Zaldibarko kiroldegian.

PADELA

Durangoko Padel Txapelketa

Noiz: ekainaren 2an, 3an, 9an eta 10ean.

Non:

Arripausuetan (Landakon).
Plazak: 32 bikote.
Adina: 16 urtetik gorakoak.
Prezioa: 20 euro bikoteko.
Izen-ematea:
Landako 2 kiroldegian, (igerilekuak).

Denak dira favorito San Trokazeko finaleran

Kadete zein promesetan final orekatuak aurreikusten dira bihar Abadiñoako frontoian

Zapatuan, 16:30ean, San Trokaz pilota txapelketako finalak jokatu dituzte Abadiñoako pilotalekuan. Kadeteetako eta promesetatik txapelak zein bikoterezentzat izango diren aurreikustea zaila da. Lau bikoteak sendo aritu dira orain arte.

Finaleko lau bikoteak sendo aritu dira orain arte

Kadeteetan Olaizola eta Martinez Lesakako bikoteak Labaka eta Aburuza Lasartekoa izango du aurrez aurre. Olaizolaren errendimendua izan daiteke finaleko gakoa. Mutil handia da, jotzailea, eta partiduko erritmoa

ezartzen asmatzen badu euren alde joango da partidua. Beste bikotean, Aburuzak atzean agindu beharko du Labakak errematerako aukerak izan ditzan.

Promesen finalean, Etxaniz eta Aizpuruaren aurka jokatu dute Artolak eta Galarzak. Final honen berezitasuna da Iñaki Artolak orain urte bi atzelari arituta jokatu zuela txapelketa eta aurten aurrelari dabil. Ez da errematatzaile petoa eta seguruenik Galarzak eta biek atzean bilatuko dute tantomia.

Horiek horrela, Aizpuruari partidua luze egin dakioko. Urdirnen esperantza aurrean dago; Etxaniz erramatatzailea da eta jokoa ahalik gehien nahasten saiatu beharko du. Sakeak ere izan dezake zeresana aurrelari biak sakatzaileak direlako. ■ J.D.

Zaldibarko gaztetxoak Baskoniako izarrekin

Baskonia-Gescrap Bizkaia derbia hasi aurretik, Buesa Arenan jokatu zuten

Zaldia Mini Basket taldeko hamalau gaztetxori ametsa errealitate bilakatu zitzaizen Caja Laboral Baskonia eta Gescrap Bizkaiaeren arteko derbian. Zaldibarko guraso elkartearen

Baskoniako jokalariek denek sinatutako kamiseta eman zieten



bitartez, 106 lagun joan ziren Gasteizera eta derbiaren aurretik kantuan jokatzeko aukera eskaini zien Baskoniako gaztetxoei. Saskibaloi izarrek beroketa ariketak egitera irten zirenean eurekin argazkiak egin zituzten.

Gainera, derbiaren ostean, posterrak eta Baskoniako jokalariek denek sinatutako kamiseta eman zieten. Gaztetxoek kamiseta Jaione Mendilibar entrenatzaileari oparitzea erabaki zuten, taldearen alde egindako lana eskertu guran. ■ J.D.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones


ORGAK, PLATAFORMAK,
HONDEATZAILEAK,...
ERABILTZEAN
SEGURTASUNA
ZAINTEKO
IKASTAROAK

Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.net

JASOGAILUAK



Artaziak




Beso artikulatuak



Beso artikulatuak

PRODUKTU BERRIAK



Armiarma jasogailua



Beldar jasogailua



Mozketa konpresorearekin



Pertsona bakarrekoa

www.alkimax.com



OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADINO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiropodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA



www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO
tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUBARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak


Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

mendi ibilbideak AISIALDIA >



Durango M.T.B.



Inguruko basoak bizikletaz zeharkatzera ausartu gura?

BTT edo mendi-bizikleta atsegin dutenentzako ibilbide aproposa da honakoa. Durango, lurreta eta Garaitik pasatzen den bide aldapatsua da.

Durango Madalena plaza-rik irten eta Iurretarrantz jo behar du txirridulariak. Goiuri auzorako bidea hartu eta hilerriaren parean eskumako auzo-bidetik segitu. Pinudi batera sartzean, bidegurutze batez topo egin, eta bertan Momoitiorako norabideari jarraitu. Aldapa gogorra dago bidean, San Juan ermita ingurura heldu arte. Lehenengo atsedenerako tartea bertan hartu ahal da, behar izanez gero.

Gero, aurrerantz jo eta Forestalera igotzea tokatzen da. Han ezkerreko bidea hartu eta Maumera joateko prestatu. Pista gorabeheratsua da hori, eta eguraldiaren

arabera lupetz asko egon ahal da. Putzuak topatzea ere ez da gaitza izango.

Maumeko atarira ailegatuko da ziklista 14,6 kilometro osatu ostean. Bista ikusgarriez gozatu (begiak bidetik apartatuz gero), eta Oromiño auzoa da hurrengo geltokia. Baserri eta inguru historikoak bisitatzeko aprobetxa daiteke.

Arrianditik, etxera

Oromiñotik jaitzita, Muniketatik Durangorako errepidea hartu (BI-332) Arriandira irteteko. Handik, bidegorriari segika helduko da mendikletaria berriro Durangora, ordu biko osteratxoa amaituta.

ZER IKUSI...



Maumeko ataria



Oromiño auzoa

DISTANTZIA

24,46 km

IRAUPENA

2 ordu

IGOERA METATUA

734 m

ZAILTASUNA

Gogorra

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Maiatzaren 18an, 22:00etan, Elorrioko Gaztetxean

KOKEIN, NAPOKA BAND

Izan diskoagaz dator Eibarko Kokein, taldearen "inoizko kantarik rockeroenak" bildu dituen diskoa aurkeztera. Bestalde, Andoni Mujika, Felix Buff eta Rafa Rodrigogaz banda osatuta jardungo dute Napoka Iriako Miren Narbaizak eta Ander Mujikak, Elorrion.

ANTZERKIA

DURANGO

>> **Maiatzaren 18an eta 19an,** Kurutzia ikastralako antzerki taldearen **Hanketatik burura**, 19:00etan, Durangoko kaleetan. **Zapatilen kasua** antzezlana, 22:00etan, San Agustinen.

AZOKA

IURRETA

>> **Maiatzaren 19an,** **IX. Okela eta Ardao eguna**, 11:00etan, Askondo kalean.

MAÑARIA

>> **Maiatzaren 20an,** **Elikadura eta artisautza azoka**, 10:00etan, herriko plazan.

BERBALDIA

DURANGO

>> **Maiatzaren 24an,** **Juan Carlos Lopez Quintana**, 19:00etan, Museoa.

ELORRIO

>> **Maiatzaren 19an,** **Bizikidetzaren berradiskidetzeta, pertsona eta gizarte mailan dagokiguna.** Iturri kultur etxean, 10:00etan.

>> **Maiatzaren 24an,** Patxi Zabalo EHUko irakaslearen **Zergatik gaude krisian?** berbaldia, Iturri kultur etxean, 19:30etan. Kainabera GKEak antolatutako hitzaldiak.

BERTSOAK

DURANGO

>> **Maiatzaren 24an,** Josu Goikoetxea gai jartzaileagaz **bertso trama prestatzen**, 19:30etan, Plateruenean. DF Bertsozale eskola.

MAÑARIA

>> **Maiatzaren 18an,** Bertso afaria **Andoni Egaña eta Sustrai Colinagaz**, 21:00etan, herriko tabernan.

ERAKUSKETA

DURANGO

>> **Maiatzaren 27ra arte,** Berni Gonzalez eta Natalia Pedreroren **¿De dónde venimos? ¿Quiénes somos? ¿A dónde vamos?**, Arte eta Historia Museoa.

MAÑARIA

>> **Maiatzaren 20ra arte,** **Gerra Zibila Durangaldean**, Kultur Etxean.

JAIK

ABADIÑO (santrokazak)

>> **Maiatzaren 18an, Libertia**, umeentzako antzezlana, 18:00etan, probalekuan. **Mikel Markez eta Erramun Martikorena**, 22:30etan, probalekuan.

>> **Maiatzaren 19an, Bizikleta martxa**, 10:00etan, Txanporta plazatik irtenda. Gaztelurako **kronoigoera**, 12:00etan, kanposantutik. **Paella txapelketa**, 14:00etan, Ferialeku plazan. **Eskuz binakako San Trokaz sariaren** umeen finala 16:00etan, frontoian. **Umeentzako jolasak**, 17:00etan, Ferialeku plazan. **Triki-bertso poteoa**, 18:00etan. **Argazki herrikoa**, 19:00etan, Txanporta plazan. **Abesbatzen ekitaldia**, 20:00etan. **Gozategi** taldearen erromeria, 20:00etan, eta, **Gramones eta Gertzainak**, 23:30etan, Txanporta plazan.

>> **Maiatzaren 20an, Futbito eta saskibalo** partiduak, 10:00etan, eskoletan. **Binakako San Trokaz pilota txapelketaren** finala, Tornosolo trinketean. **Kalejira**, 11:00etan, Txanbolin taldeko txistulariekin. **Talde Batuak** taldeko umeekin kalejira, 17:00etan. **Txokolatada**, 19:30etan, Txanporta plazan. **Gerbasi agurra**, 20:00etan.

JAIALDIA

BERRIZ

>> **Maiatzaren 19an, Udaberri Fest**, Hiltegixe Gaztetxean. 09:30etan, auzo martxa. Ostein bazkaria, eta Seiurte taldearen kontzertu akustikoa, 17:30etan.

KONTALARIA

DURANGO

>> **Maiatzaren 18an,** **Txefe Rodriguez eta Anduriña Zurutuza**, 20:00etan, Bibliotekan.

IURRETA

>> **Maiatzaren 25ean,** **Virginia Imazen** umeentzako saioak: hiru eta lau urtekoentzat (17:30); eta bost urtetik gorakoentzat (18:00). **Marisol Abreuren** helduentzako saioa, 20:00etan.

MUSIKA

DURANGO

>> **Maiatzaren 18an,** **Los del Gas**, 22:00etan, Plateruenean.

ELORRIO

>> **Maiatzaren 18an,** **Kokein eta Napoka Band**, 22:00etan, Elorrioko gaztetxean.

MAÑARIA

>> **Maiatzaren 19an, Abesbatzen kontzertua:** Mañariko Kirikiño eta Bilboko Lagundia abesbatzak; eta Portugaleteko Orfeoia. 20:00etan, elizan.

ZORNOTZA

>> **Maiatzaren 19an, Maite Olmos eta Juanjo Munera**, 20:00etan, Ergoingo San Juan basilizan. Eleizetan jaialdia.

>> **Maiatzaren 20an, Brussels Virtuosi** ganbara taldea, 12:00etan, Etxanoko Andra Mari elizan. Eleizetan jaialdia.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Los diarios del ron

Zuzendaria: Bruce Robinson
barikua 18: 22:00
zapateria 19: 22:30
domeka 20: 22:30
astelehena 21: 22:00
martitzena 22: 20:00

Los juegos del hambre

Zuzendaria: Gary Ross
barikua 18: 19:00
zapateria 19: 19:30
domeka 20: 22:30
astelehena 21: 19:00

Umeen zinema

Los cachorros y el código Marco Polo

Zuzendaria: Sergio Manfio
zapateria 19: 17:00
domeka 20: 17:00

ELORRIO

Arriola

Extraterrestre

Zuzendaria: Nacho Vigalondo
zapateria 19: 22:30
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

La pesca del salmón en Yemen

Zuzendaria: Lasse Hallström
domeka 20: 20:00
astelehena 21: 20:00



Maiatzaren 19an, 20:00etan Abadiñoako santrokazetan

GOZATEGI, MARTIKORENA, MARKEZ

Zelaietako San Trokaz jaien bigarren zapatuan, bihar, kontzertua eskainiko du Gozategik. Txanporta plazan jardungo du taldeak, 20:00etatik aurrera. Gaur gauean ere musikazaleentzako eskaintza interesgarria izango da santrokazetan: Erramun Martikorena eta Mikel Markezen kantaldia izango da, 22:30ean hasita, probalekuan. Disko berriak aurkeztuko dituzte.

maiatzeko agenda

Maiatzak 19,20,26,27 • Iurreta Txirindulari Elkartea
08:00/08:30 Hainbat ibilbide (124-145km)

Maiatzak 19 • Amojur Iurretako Motorzaleen Elkartea
10:00 Iurreta-Laida-Iurreta. 124 km.

Maiatzak 19 • IX. Okela eta Ardao Eguna
11:00-15:00 Askondo kalean

Maiatzak 25 • Herri biblioteka
Ipuin kontalaria, 17:30 (3-4 urte) / 18:00 (5 urtetik gora)
20:00 Helduen ipuin kontalaria. Marisol Abreu (Venezuela)

Maiatzak 26 • Mutriku Sokatira Taldea
17:30 Euskal Herriko Soka Tira Txapelketa finala

Maiatzak 29 • Emakumeen Bira
12:30 25. Emakumeen Biraren aurkezpena

Maiatzak 30 - Ekainak 1 • Erakusketa
Eskulanak, egur-lanketa, argazkigintza, pintura eta ingeles ikastaroen erakusketa Ibarretxe kultur etxean. 11:00-12:30 eta 17:30-20:00

Maiatzak 30 • IT Txartela
18:00-20:00 Iurretako KZgunean

Maiatzak 31 • Agerraldia
Olaburu frontoian. Iurretako kultur tailerren ikasturteari amaiera emateko jaialdia. 18:00 gimnasia, yoga, saloi dantzak, Karibeko dantzak, sabel dantzen agerraldia Jarraian denontzako luntxa eta erromeria egongo da.

OHARRA

Hezkuntzagatiko dirulaguntzak
Maiatzaren 14tik 25era bitartean, seme-alaben hezkuntzagatiko gastu orokorretarako Iurretako familiei dirulaguntza eskatzeko epea zabalik. Informazio gehiago: www.iurreta.net edo 94 620 03 42 telefonoan

IURRETAKO UDALA

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 14:00ak arteko epea



Urteak betetzen ditudan bakoitzean legez, Juanik esaten dit bihotzak su hartzen diola. Aurten prest nago ez dezan su hartu Matienak! Zorionak!



Naiak maiatzaren 13an 6 urte bete zituen. Beti bezain jator jarrai dezazula! Musu bat guraso, aitita-amama, osaben eta lagunerekin partez!



Bihar, maiatzaren 19an, **Loreak** 8 urte beteko ditu. Zorionak eta musu handi handi bat zure familiarekin partez!



15Mren inspirazio iturri gara, eta ez dugu hatzamarrik sartzen ahoan: kolunpioa kentzen badiguzue... Edozertarako kapaz gara! Zorionak **Andoni** eta **Joseba**, gurasoen eta familia osoaren partez!



Araitz Arrizabalaga Zuazok 3 urte bete ditu gaur. Zorionak eta musu bat gure sorgintxoari etxeko guztion partez! Baita osaba Iñigori ere!



Etxeko neskatilak 7 urte bete zituen maiatzaren 16an eta bere neba txikiak 3 hilabete egingo ditu maiatzaren 23an. Zorionak **Amets** eta **Maren**! Musuak amama eta aitixkarekin partez.



Gure lehengusuek, **Eneko** eta **Beñatek**, 11 urte bete dabez martitzenean. Zorionak eta musu handi bat bikote!



Zorionak mutil! Ritmo horretan laster etxeko altuena! Zorionak lurretatik **Josu**, aittite, Uxue eta Anartzen partez. Eta besarkada bat etxekoen partez!



Zorionak Abadiñonak jaiotako Maiatzeko loratxoak: **Anetxi**, **Manetxito** eta **Jontxu**! Apirilkoak izan arren zuri be zorionak **Madditxi** zure lehenengo urtebetetzean!



Zorionak **Angel Loroño**! Maiatzaren 23an urteak betetzen ditu. Zure iloba Elene, etxeko printzesa-ta eta etxekoen partez! Musu potolo bat!



Zorionak **Iñigori**! Hamabostero zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu, Bixente Kapanaga 9an.

ESKELAK



Garikoitz Bragado Azpiri

MAITE ZAITUGU
Gariren omenez zure landaketa egingo dugu larunbatean 12:00etan Atxarteko ermitan
Zure lagunak



Garikoitz Bragado Azpiri

Gure ondotik joan zara, baina beti izango zaitugu gure bihotzean

anboto
Anbotoko lan-taldea

BOTIKAK >

- Barikua, 18**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
Zapatua, 19
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-13:30
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
Domeka, 20
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Astelehena, 21
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Martitzena, 22
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
09:00-22:00
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
Eguaztena, 23
09:00-09:00
• Navarro (Artekale, 6, Durango)
Eguena, 24
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño94 681 44 70
Matiena606 45 99 88
Durango Geltokia94 681 10 01
Elorrio Geltokia.....94 682 00 40
J.L. Uriarte670 40 20 02
I. Estebez670 67 82 73
M Galeano670 40 93 30
lurreta94 620 15 65
Taxi auzunea688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00

- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

EGURALDIA >

- 11
18° BARIKUA ☁️
9
16° ZAPATUA ☔️
9
14° DOMEKA ☔️
9
17° ASTELEHENA ☔️
12
18° MARTITZENA ☁️

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) -
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga..... 0,80 euro
Porruak..... 1,80 euro/tx
Kalabaza..... 2,20 euro/kg
Azenarioak..... 1,50 euro/tx
Azalgak..... 2 euro/kg
Bruselazak..... 3 euro/kg
Espinakak..... 1,50 euro/tx
Indabak..... 15 euro/kg
Idiazabal gazta..... 16,50 e/kg
Espeltazko ogia..... 3,60 euro

Jatetxe gida



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatuta.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Elorrioko Batzokia

Urarka 13, Elorrio
Tel.: 94 658 32 18

Gosariak. Pintxoak.
Eguneko menua. Asteburuko menuak.
Plater konbinatuak, bokatak, pizzak.
Pintxo kateringua. Zorion askariak.

batzokielorrio www.batzokielorrio.com



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Especialitatea: Txuleta errea.



“Mostradore ostean psikologia asko ikasten da”

Isasi ahizpek 27 urte egin dituzte dendan, arropa saltzen; erretiroa hartzeko ordua zela ikusita, bizimodu berriari ekiteko gogoz dira

Denda barrura sartu eta armairuak hutsik ikusita, tristura eragiten die, etxe kuttuna utziko duenari legez. Ateko oharrak erretiratu direla esan arren, ez dira urrun joango. Lotura indartsua da, eta momentu onak gogoratuz alaitu dira. Hariari tiraka, atzokoa, gaurkoa eta biharkoa josi dituzte solasaldian.

Atzera egin eta gogoratu arropa dendaren hasierako sasoi hura.
Kontxi Isasi: Orain dela 27 urte hasi ginen, mostradore ostean sekula egon barik. Nahiz eta orduan ume txikiak eduki, biok ilusioa geneukan eta horrela hasi ginen. 27 urte egin ditugu poz-oz. Ondo hasi eta ondo amaitu dugu.

Ahizpak izatea, abantaila izango da lanerako.

Rosi Isasi: Pentsatzen dut dena izan dela onerako. Beti oso ondo konpondu izan gara elkarrekin. Batak besteari laguntzeko prest. Sekula ez dugu eduki arazorik.

Zer saltzen zenuten?

K. I.: Gehienbat umeen arropa. Baina baita osagarriak, nagusien arropa, 60ko neurrirako barruko arropa... Herri txikia da, baina zelan beste dendarik ez dagoen, dena saltzen izan da ondo. Ez duguna eduki ere, zapatak-eta, askotan eskatu digute. Baina nahikoa behar eduki dugu dendakoa-gaz eta ez dugu gura izan gehiagaz sartu.

Kanpotik ere etortzen izan ei da jendea zuen dendara.

R. I.: Asko. Atxondokoekin ere pozik gaude, baina kanpoko jendeagaz oraindino eta behar gehiago egin izan dugu. Zorte handia eduki dugu dendagaz.

Ume ugari pasako zen zuen dendatik. Horiek hazten ere ikusiko zenituzten, ezta?

K. I.: Zabaldu genuenean, gurasoak euren umeekin etortzen hasi ziren. Orain, 27 urte pasata, ume haiek euren umeekin etortzen izan dira. Horrek betetasun bat ematen dizu... Oso gauza polita da hori.

Dendak lagun eta ezagunen bilgune ere badira sarritan.

K. I.: Guk esaten dugu, mostradore ostean psikologia asko ikasten dela. Jendea erosten etorri izan da, duda barik. Baina batzuk, apur bat euren bizimoduak kontatzen ere bai. Zuk bera lasaitu guran-edo.

Oharra ipini duzue atean. ‘Oroitzapen oso onak daramatzagu’.

R. I.: Gehienak oso onak izan dira. Sorpresa hartu duguitxi egin behar dugula esan eta gero. Bezero batzuek gutunak idatzi edota opariak egin dizkigute. Espero ez genuen jendeak ere eman dizkigu eskerrik.

K. I.: Guk transmititu dugu, baina bezeroek ere bai. Oso gustura egin dugu beharra; lan polita izan da. Bezero onak eduki ditugu, benetan baietz. Urte askotakoak.

Zuek jositako arroparik saldu duzue?

R. I.: Lehenengotan bai. Puntuzko txaketaren batzuk-eta egin genituen. Gero ez, ez dugu denborarik eduki-eta.

K. I.: Konponketak bai egin izan ditugu. Nahiz eta askotan denda itxi eta etxean gauez egin behar

izan. Igoaldi hori izan da bezeroak gugaz jarraitzeko modu bat.

Zer asmo daukazue orain? Zer afizio daukazue?

K. I.: Gizonak ere jubilatuta zaizkigu, eta bizimoduaz apur bat disfrutatzea.

R. I.: Bioi asko gustatzen zaigu irakurtzea. Lehen ez genuen denborarik ateratzen.

Irakurleei esatekorik?

K. I.: Eskerrak ematea bezero guztiei hainbeste urtetan lagundu gaituztelako.

R. I.: Esan, baita ere, irailean berriro zabalduko dela denda. Gu ez gara egongo, baina seguru ondo hartuko dituztela.



Kontxi eta Rosi Isasi •

27 urtean ‘Ainhua y Judit’-eko dendari Apatan. Axpekoak dira.

Erditze duina

Uxue Alberdi idazle eta bertso-lariak, ama izan barritan, bere erditzeari bertsoak jarri eutsazan *Erditze baten kronika* izenburupean. Kronika hain zehatz eta zirrargarria irakurtzeko erditzeari buruzko gogoeta eragin deust.

Mendeetan, Uxuek lez, andrek beste andre batzuen laguntzagaz ekarri dabez umeak mundura. Urteak igaro ahal, umeak munduratzeko era aldatu eta andrazkoena izandako mundu horretan gizonak sartu ziren; medikuak erditzeetan parte hartzen hasi ziren, emaginak bigarren mailan utziz.

Erditzeak ospitaleetara eroran ziren 50eko hamarkadan. Aurrerapen handitzat jo zen pausoa, baina andren beharri-emozionalak ez ziren aintzat hartu, ezta jaioberrienak be. Askotan, umeak jaiotze eta aton, amarengandik banatu egiten ziren, bien arteko harremana hautsiz. Urteokaz, batez be andrak medikuntzara heldu direnetik, erditzeak medikalizatu egia daudela hasi gara entzuten, teknologia gehiegi erabiltzen dela, eta aplikatzen diren protokolo askok mesede baino kalte handiagoa dakartela. Antza denez, gure ospitale batzuetan gauzak aldatzen ari dira eta erditzeak humanizatzen.

Gauregun zenbait emakume erditze-planak aurkezten dabez ospitalean, zelan erditu gure daben azaltzeko eta hori errespetatzea eskatzeko. Beste batzuk barriz, etxean erditzea aukeratzeko dabe, emaginaren laguntzaz. Bide hau garestia dela badakigu eta etxean erditzeko emaginaren eskaria eskaintza baino askoz handiagoa dela be bai.

Edozelan be, andra guztion eskubidea da gure umeak zelan izan gura ditugun erabakitzea; ospitalean edo etxean. Tamalez, gure osasun-sistema publikoak gabezia handiak ditu arlo horretan, baina gure esku dago bidea jorratzen jarraitzea. Ekinez lortuko dogu doako erditze duina.

e t x e a
i a t
i a t
e t x e a

PLATERUENA

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10

Asteartea **ARINARIN**

Asteazkena **AHOBETEMUNDU**

Osteguna **GEUREKONTU**

Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatara egunero aukeran:

Menu ekologikoa

Menu begetarianoa

Haurrentzat menu erdia

Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA Landako etorbidea, 4 A
- 48200 Durango Jateketa: 946030300